



Lakabe

30 urtez
landutako herri
komunitarioa

Luis Otaño:

«Ziklismoak
hobera egin du
azken urteetan,
gu esklaboak
ginen»

Jazzaldia

Bertako taldeen
parte-hartzea,
betelana ala
aukera?

Net Hurbil

Beharrak
sortutako ortu
iraultzaileak
Habanan

Josu


Erkoreka:

«Madrilen ez dira
inoiz euskal
politikari buruzko
kasualitateak
izaten»

OLATZ ZUGASTI

«Curriculumak euskal kantutegi
tradizionalaren ezagutza bermatu
beharko luke»





TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12
☎ 37 03 04

- 4 Deabruaren abokatua: Felix Linares.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 16 Luis Otaño: "Vuelta minu erdiagatik galdu nuen Poulidorrekin".** Dani Llopis Irazusta.

Iritziak

- 21 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
22 Ttakun (h)errenka. Engendrokronologia.
José Luis Padrón.
23 Tortura ukatzen jarraitzeko! Pako Sudupe.
Mendekotasun. Joxemari Ostolaza.
24 Euroaren ajea. Mikel Zurbano.
UPV/EHU. Igor Estankona.
25 Zirtak. Ad infinitum? Patxi Zubizarreta.
26 Bertso berriak. Nomada postmodernoei jarriak.
Uxue Alberdi.

Erdiko kaiera

- 31 Hemendik aurrera, Euskadi Literatura Lehiaketa.**
Gorka Bereziartua.
32 Liburuak. Gema Lasarte.
33 Diskoak. Iker Barandiaran.
34 Ezpalak. Jon Torner.
35 Abarrak. Estitxu Eizagirre.
36 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarritz.
38 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 41 Josu Erkoreka: "Patxi Lopezen ezaugarri politiko nagusia iruzurra da".** Mikel Asurmendi.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Kubako iraultza Habanako ortuetan aurkitzen da. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Bozkarioan.** Josemari Velez de Mendizabal.

5 | Lakabe proiektua | Uxua Larretxea

Nafarroako Artze bailaran dago Lakabe, eta inguruko herrien gisan, ekonomia komunitarioa dute oinarri, dena da denena, baita irabaziak ere. Dagoeneko 30 urte daramatzate ogia saltzen, autoekoizpena sustatzen eta energia nahiz baliabide berriztagarriak erabiltzen. Bertan izan gara.



27 | Jazzaldia, bertoko taldeen begietatik | Uxua Larretxea

44 | Nerabeak zirikatuta euskarara hurbiltzeko | Onintza Irureta Azkune

10 | Olatz Zugasti | Miel A. Elustondo

Kaleratzeaz den *Kantaita uheran* diskoaren aitzakian, harparen liluraz aritu gara Zugastirekin. Eskolan herri-kantagintza lantzeak duen garrantzia, entzuleari musika komunikatzea eta beste hainbat kontu ere izan ditugu mintzagai.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Añña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua





“Zientzia-fikzioa gorroto duen zenbat jendek ikusi du Avatar?”

Felix Linares

5... 4... 3... 2... 1...

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Unai Brea

Nori inporta zaio kultura?

Sortzaileei, kulturgileei, eta euren kontura bizi diren espekulatzailerorok. Nork asmatu zuen “Kultura debalde ala zure amonak kontsumitu dezala” teoria?

Zinemara joateko kreditua eskatu behar dela konprobatu zuen batek!

Gure lagun batek San Mamesera joateagatik 90 euro ordaintzen ditu partidako. Nik 90 euroekin hamabost pelikula ikusi ditzaket. Zinema garestia zela zenioen?

Eta aretoak hutsik daudela, ixten ari direla...

Zinema ez du telebistak izorratu, industriaren neurrigabeko anbizioak eta kontsumitzaileen estimu apurrak baizik. Ai, zergatik gutxien du zinemak ikuslearen inteligentzia?

Noiz ikusi duzu txarteldegia lehertu duen filma intelighenterik?

Produktore estatubatuarrek kudeatzaile hutsak direlako gertatzen da hori. Zein zeren jabea den ez dakizun mundu honetan, Coca-Colan sartu eta zine sekziora kondenatu dituztela ematen du.

Zu ere marketin kanpaina erraldoi bat pelikula on bat baino eraginkorragoa dela dioen matrakarekin?

Zergatik bideratzen dira Hollywoodeko filmen aurrekontuen bi herenak propagandara? Zientzia-fikzioa gorroto duen zenbat jendek ikusi du Avatar? Ikusi ezean gizartearen hondakina bazara, zer nahi duzu? Okerrena da ikusi eta gustatu egin zaiela.

Arrakasta txarteldegian neurtzen dela, konpai!

Zergatik kontsumitzen dugu ikusien, irakurrien, eta salduen arabera? Utzikeria orokorra erreferentzia zehatz horiekin estaliko dugula uste dugu? Zerrenda horiek produktu gutxiago kontsumitzera daramate, jendeak lehen postuan dagoena baizik ez baitu nahi.

Eskerrak adituei beti geratuko zaizuen zinema japoniar eta irandarra...

Eta uzbekiarra, zer? Kar, kar, kar... Une bakoitzak dauka bere zinema, eta zorionez, pelikula txikiek ere badaukate euren publikoa. Baina pelikula txiki batzuk aretoetara heltzea Athletic bigarren mailara jaistea bezain ezinezkoa da.

Hara, esnatu da zugan datzan bilbainoa.

Bilbotar izatearen kontzientziak sexuaren plazera txiki uzten du. Onartzen ditut gure akastxoak, baina munduak ezin du ukatu handiak izatea egokitu zaigula.

Bai, bai, sortu zaitezke nahi duzuen lekuan, baina jubilatuta beste denak bezala!

Horrek frogatzen du zer munstro den boterea. Sustantziala ez denarekin nahi beste broma egiten utziko dizu, baina serioztat daukanari buruz iritzia ere ez dizu eskatuko.

Ai, ai, ai, bizitza bat alferrik...

Eskerrak, besterik egiten jakin ez eta plazera eta negozioak uztartu ditudan! Urtetan saiatu naiz mundua artea eta kulturaren bidez ulertzen, baina orain jabetu naiz mundua ondoen zientziak esplikatzen duela. Beranduegi dela uste duzu? ■

Lakabe proiektua

Komunitatea oinarri

Gaztetxeak eta etxe edo baserri okupatuak ezagunak dira gure inguruan, ez horrenbeste herri okupatuak. Horietako bat da ekoaldearen barnean dagoen Nafarroako Lakabe; natura, komunitatea eta norbanakoa oinarri dituen 30 urteko esperientzia.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco

“ZORIONTASUNAREN BILA nenbilen, sistema-ren gurpiletik at beste bizimodu bat nahi nuen etxebizitzak okupatzen hasi nintze-nean”. 25 urtetik gora daramatza okupazio munduan Iñaki Garcia donostiarrak. Hasiera batean Donostia eta Oarsoaldean bilatu zituen bizilekuak, eta ondotik Nafarroa izan zuen jomuga; Iruñeko Euskal Jai gaztetxetik nekazal herri okupatuetara egin zuen jauzi. Lakabe du egun bizitoki; sistema ekonomiko, politiko eta sozial alternatiboak dituen Nafarroako Artze bailarako herria.

Hamar bat eraikin (tartean gaztetxe bat, bisitariak hartzeko eraikin bat eta etxebizitzak) ditu herriak, baratzeak, negutegi bat, egur tailerra, Mongoliako jatorria duen haima bat, animalia ugari... Eta bertan bizitzen eta elkarbizitzen, hogeit bat lagun. Egitasmoa dagoeneko 30 urte betetzear da eta urtez urte, herritarrek bizitzeko modu berezkoa eraiki dute. Egun ere, horretan dihardute. Ekonomikoki burujabeak dira, baita beste hainbat arlotan ere; komunitate egitura sendotua eta oinarri materiala segurtatua dute,

Lakabe, Nafarroako Artze bailarako herria.





eta gainera, euren ekonomia gorantz doa. Lakaberi buruz nabarmendu daitezkeen ezaugarriak ugariak dira, baina akaso garrantzitsuena ez da berehala ikusten, nahiz eta beraiek asko landu: pertsonaren barrualdea eta komunitate filosofia.

Lakaberekin batera, Artze, Longida eta Urraulgoiti bailaretan dauden beste hainbat herrik (Ulibeiti, Arizkuren, Rala, Artanga eta Aizkurgi) ekoaldea osatzen dute. Ekonomia komuna –komunitate gisara antolatua– eta naturarekiko errespetua dute amankomun, baina eguneroko funtzionamenduak desberdintzen ditu.

Lakaberen edo Arizkunen kasuan, ekonomia eta egin beharreko lanak komunak dira; hots, irabaziak edo baliabideak berdintasunean elkar banatzen dituzte. Hori ez da beste herrietan gertatzen, ekonomia komuna izanik ere, etxe bakoitzean ekonomia ezberdinduak baitituzte eta herritik kanpoko bitartekoetan oinarritzen dute. Zertan sustengatzen da ordea Lakaberen ekonomia? “Ogia egin eta Iruñeko auzo eta inguruko herrietan saltzen dugu, hortik diru iturri esanguratsua datorkigu. Pentsa, ogia nola egiten dugun erakusteko ikastaroak antolatu ohi ditugu eta Donostiako, Bartzelonako edota Cartagenako jendea etorri izan da gureru ikastera!”, azaldu digu Iñaki Garciak. Horretaz gain, animalietatik (oilok, ardiak,

Ogia egin eta Iruñerrian saltzen dute. Animalietatik zein baratzetik elikagaiak lortzen dituzte eta tarteka txerrikiak saltzen dituzte. Euren egindako garagardoa ere badute.

behiak, astoa, txerriak...) zein baratzetik lortzen dituzte, besteak beste, euren mantentzeko beharrezko elikagaiak. Txerrikiak, gainera, tarteka herritik kanpo saltzen dituzte. Euren egindako garagardoa ere badute.

Ekonomia bateratua

“Ez dugu kanpoan lan egin beharrik bizirau-teko, dirua hemendik bertatik datorkigu eta horixe da hain justu xedea; modu jakin batean bizi nahi dugu eta egunero-egunero fabrikara joan beharko bagenu lan egitera eta soilik gauetan itzuliko bagina lo egitera, garai batean egin nuen moduan, zaila litzateke bizi proiektu hau aurrera ateratzea”, dio donostiarrak. Alta, bada kanpoan lan egiten duenik ere, baina ez behar ekonomikoagatik, bere lanbidea jorratu nahi duelako baizik, profesionalki garatu. Lortutako lansaria ere herriko ekonomia bateratura doa. Bestalde, azpiegitura bermatzeko materialak egundaino herriko egur tailerrean landu izan dituzte. “Orain gehienetan kanpotik ekartzen ditugu, ekonomikoagoa delako”.

Kanpoan lanik ez egiteak ez du esan nahi, haatik, etxean zereginik ez dagoenik, maiz ordutegirik gabeko lan horiek izaten baitira pisutsuenak. Garciak bere ohiko egun bat nolakoa den kontatu digu: “Astelehenetan, adibidez, ogia banatzen dut. Banaketa gehien egiten den eguna da. Gero nire semearekin



egoten naiz, eta garbiketa edo janaria prestatzeko txanda egokitzen bazait, hori egiten dut, edo bestela mendian edo eraikuntzan lan egiten dut beharrik badago”. Izan ere, ardurak denen artean banatzen dituzte, garbiketa edo bazkaria prestatzea, kasu. Bi hilabetetan, hiruzpalau aldiz egokitzen zaio bakoitzari txanda, une horretan Lakaben dagoen jende kopurua gorabehera. Afaria bakoitzak bere kabuz egiten du, une horretan bizi den etxean –etxez aldatzen dira tarteka, Lakaben ez baitago jabetzarik–. Bestelako egitekoak gauzatze (ogia egin eta banatu, garagardoa egin, eraikuntza eta teknologia lanak, auto konponketa, eta abar) taldeka antolatzen dira.

Edonola ere, urtarokak badu zeresanik herritarren jardunean. Esaterako, udaberrian lurra prestatu eta lantzea egokitzen zaie eta udan, besteak beste, baratzean lan egitea. Hori komunitateko ardurekin, baina gainontzean norbera da bere denboraren jabe eta bakoitzak hautatzen du aisialdian zer egin.

Asanblada bidez elkarbizitza arautua

Komunitatean bizitzeak antolamendua eta elkarbizitza arautzeko gutxiengo irizpide batzuk ezartzea galdegiten du, eta asanbladak –beste ardura batzuen artean– horiek finantzatzeko egitekoa du. Honela azaldu dizkigu Iñaki Garciak sistemaren nondik norakoak:

Herriko bizilagunek ez dute argazkietan agertu nahi izan.

Energia berriztagarriak erabiltzen dituzte, eurek egindako ogia saltzen dute, eta komunean pixa eta kaka bereizten dituzte, azken hori ongarri moduan erabiltzeko.

“Asanbladan, herrian bizi garen kideak bil-tzen gara astero eta hainbat erabaki hartzen ditugu. Adibidez, gure egunerokoa arautzeko zein irizpide jarraituko dugun. Halere, arau horiek malguak izaten dira”. Gai ezberdinen inguruko iritzia emateko abagunea ere izaten dute herritarrek eta horretan adinak ez du mugarik: “Asanblada batean 50 urteko pertsona bat edo 6 urteko beste bat jardun daitezke beren iritzia ematen inolako arazorik gabe”. Kontuan izan behar da une honetan Lakaben belaunaldi ezberdinak jendea ari dela elkarbizitzen, horrek dakarren aberastasunarekin.

Bailarako inguruko herriei ideiak eta proiektu ideologiko eta politikoak ez ezik, lanabesak, autoak, haziak, makinak, elikagaiak eta ezagutzak banatzen dituzte

Asanbladan erabakitzen dute baita ere ea onartuko duten herrian bizi nahi duen norbait. Dena dela, pertsona horri Lakaben benetan bizi nahi duen eta horrela bizitzeko gauza den pentsatzeko astia ematen zaio. “Norberak ideologia edo balore konkretu batzuk izan ditzake, baina ideia horiek ondoren praktikara eraman behar dira

beste pertsona batzuekin elkarbizitzen, eta hori oso konplexua da”, azpimarratu du donostiarrak. Asanblada irekiagoak ere egiten dituzte, hiru astetik behin gutxi gorabehera, eta herriko kide iraunkorrez gain parte hartzen dute denbora bat igarotzen ari direnak, lan puntual batzuk egitera datozenak eta bertan bizi edo ez erabakitzen ari direnak. Azkenik, komisioren funtzioa betetzen duten asan-



blada txikiak dituzte, egin beharreko lanen inguruan aritzeko –hala nola, zein etxe berre-raikiko duten hurrena– eta beste asanbladeta-ko karga murrizteko.

Beste pertsonekin bizitzea ez da erraza, eta liskarrak sortu ohi dira. Horri aurre egiteko Lakaben irtenbide eraginkorra bezain gizatiarra dute: hitz egitea. “Asanblada hasieran nola gauden eta nola sentitzen garen azaltzen dugu; egoera deserosoa edo gatazka deritzona ere lantzen dugu eta pertsona batekin edo herriko martxarekin sortu diren arazoak aipatzen ditugu. Nolanahi, norbaitekin liskarren bat izanez gero, zuzenean berarengana jo eta arazoari irtenbidea bilatzen saiatzen gara lehenik”. Hain justu, egoera horietan nola jokatu ikasteko tailerrak ematen dituzte eta ikasitakoa praktikan jartzen dute ondoren

egunerokoan. Garapen pertsonalari buruzko tailerrak, kanta eta dantza ikastaroak, zine sesioak, hitzaldiak eta jardunaldiak ere egiten dituzte. Musika da Lakabeko beste bereizgarrietako bat; kide denek jotzen dute instrumenturen bat. Horren uzta da agropunk estiloa lantzen duen herriko taldea.

AEK herritarrak euskalduntzen

Lakabeko kide batzuk euskaldunak diren arren, hartu-emana gaztelaniaz egiten da oro har. Egoera iraultzeko ideia bat otu zitzaion: eurak euskara ikastera joan beharrean, euskara irakaslea Lakabera bizitzera ekarriko zuten. Esan eta egin, AEKrekin harremanetan jarri eta adostasun batera iritsi baitziren: urtebetez irakasle bat bertan arituko da herritarrak euskalduntzen.

Euskaraz gain, akademikoki bestelako jakintzak ikasteko bidaltzen dituzte Lakabeko haurrak inguruko herrietako ikastoletara. Lehen, haurrak Agoitzeko ikastolara eramaten zituzten, baina urtegiak daukan arriskuegatik handik ateratzea erabaki zuten. Umeak ahalik eta beranduen eskolatzen ahalegintzen dira; aurten Lakabeko 8 urteko haur bat hasi da estreinako ikastolan. Ederki integratu dela eta zentzu askotan akademikoki beste haurrek baino ezagutza gehiago dituela baieztatu du Garciak.

Hori hezkuntzari dagokionez, baina nola moldatzen ote dira osasuneko beharrei erantzuteko? “Hemen ia denek medikuntza natu-

rala (homeopatia) praktikatzen dugu. Batzuetan ospitalera joatea beste aukerarik ez dugu eta joaten gara. Bestalde, ekoaldeako beste herrietan bezala Lakaben ere amek erditze naturala izatea hautatzen dute”.

Natura dute bizileku Lakabekoek —baita hein handi batean bizitzeko bitarteko—, eta horrenbestez natura zaintzeko konpromisoa hartua dute. Ez da ahaztu behar autogestioa dutela proiektuaren ardatz eta beraz energiak berebiziko garrantzia duela: energia eta material berriztagarriak erabiltzen dituzte eta birziklatu egiten dute. Hori bermatzeko hornidura sare zabala dute: eguzki plakak, haize errota, etxebizitzaren barruan beroa sortzeko sistema, eta abar. Pixa eta kaka ere bereizten dituzte, azken hori ongarri moduan berrerabiltzeko. Ez da, baina, Lakaben aurki daitekeen bitxikeria bakarra, olio birziklatuarekin dabilen ibilgailu bat ere bai baitute.

Lakabe proiektuaren bidelagun izan dira inguruko herriak ere. Ideiak eta proiektu ideologiko eta politikoak konpartitzen dituzten gisa berean banatzen dituzte lanabesak, autoak, haziak, makinak, elikagaiak, ezagutzak... Adibidez, beste herri batean baldin badago erleekin lan egiten duen norbait, bada, hara joaten dira ikastera. Tximinia bat nola egin, ferratu, errezeta bat nola prestatu... Berdin. “Elkar banatuz, elkar trukatu eta elkarrengandik ikasiz bizi gara”. Ingurukoekin ez ezik, ekoaldearen baitan Euskal Herriaz gain atzerriko beste etxe edo baserri okupatuekin ere badute hartu-emana: Espainiakoak, Portugalgoak, Frantziakoak eta Ingalaterrakoak, besteak beste.

Sarri albiste dira tokian tokiko agintarien aginduz hustu izan dituzten etxe okupatuak eta gaztetxeak. Garciaren esanetan, herri okupatuak eta komunitateak hippyekin edo fundamentu gabeko jendearekin lotu izan

Euskara ikasteko, AEKrekin harremanetan jarri eta adostasun batera iritsi ziren: urtebetez irakasle bat bertan arituko da herritarrak euskalduntzen

dituzte. “Bailarako jendeak, ordea, ikusten du nola bizi garen, baina jakitun gara Nafarroako eta hemen inguruko herrien gobernuetatik ez dugula babesik izango, askatasuna bultzatzen dugulako, sistema patriarkala deuseztatzea eta garapenaren aurka egitea”. Ideal horien aldeko borroka garesti ordaindu du donostiarrak, Itoitzeko urtegiaren aurka egi-teagatik kartzelan egona baita.

Edonola, bailarako gainontzeko herri okupatuekin alderatzen badugu, egoera pribilegiatua du Lakabek: legalki onartua dago —antzinako okupazioa delako eta politikoki une jakin batean babestu egin zutelako— eta bailarako kontzejuan herria ordezkatzeko duen alkatea dute. Hala, larreak izateko eskubidea dute eta kaleei izenak aldatu ahal izan dizkiote. Beste herri okupatuak, okupazio berriagoak izanik, oso bestelako erreali-

tatea bizi dute; esaterako, Arizkurenen kostata lortu zuten erroldatzeko eskubidea. “Etorkizunean herri okupatu guztiek bailarako kontzejuan ahotsa izatea nahiko genuke, nola bizi nahi dugun eta bailarako ekonomia nola gobernatu nahi dugun adierazteko”. Bailarako lurak ehiztarientzat soilik erabiltzen direla salatu du, eta ekonomia ez dela inondik inora euskara diruz laguntzeko, Artzeko festetarako edo pistak berreraikitzeke erabiltzen.

Errespetua eta tolerantzia, horixe aldarrikatu ditu Iñaki Garciak beste modu batera bizi nahi dutenentzat: “Bakoitzak nola bizi nahi duen erabaki behar du, eta nik besteen bizitzeko modua errespetatzen dudun moduan, haiek nirean trabarik ez diezadatela jarri eskatzen dut”.

Bestelako mundua osatzen du Lakabek, berezko filosofia duena; gauza materialek ez dute garrantzirik, bai aldiz, naturak, inguruak, pertsonak eta norbanakoak. ■

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Olatz Zugasti

«Eginkizun amaigabea da kantu bat egitea»

Ez zituen 6 urte izango aulkian igota mikrofonotik ikastolaren jaiari ekin zionean: “Txori bakoitzak bere abestia, herri bakoitzak bere hizkera: euskaldunok, euskera. Guk, ahal ditugun hizkuntza gehienak ikasiko ditugu. Buruan, hiru edo, baina bihotzean bakarra: gurea”. Berrogei urte ere baditu orain, baina mikrofonotik segitzen du, euskaraz eta musikagintzan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Kantu baten bila nabil, Bulun bulunka, Elearen lainoa, bakarka eginak dituzun hiru diskoak. Zer dituzu hiru lanok zure biografian?

Aberasgarri zaizkit, esperientzia ederra, eta ikasgai bezala hartzen ditut nire lanbide honetan. Gauza bat da zuzenean aritzea, eta beste bat zerorren burua grabatuta entzutea. Bestalde, neronen kantuak eta doinuak garatzeko modua ere bada. Herri honetan nire hatza uztekoa ere bai, eta seguru horrek bani-dadearekin ere baduela zerikusia, ez dut ezetz esango. Nire bi pasio bateratzeko aukera: gure hizkuntza, batetik, eta musikaren hizkuntza, bestetik.

“Bakarkako lanak” esanagatik ere, zenbaterainoko dira bakarkako, eta ez taldeko lan?

Bakarkako lanak halaxe dira, bakarkakoak, baina beti nahi izan dut beste inoren laguntza ondoan, beste soinu batzuk. Egin ditudan hiru diskoak oso era ezberdinean landu ditut, ez dute bata bestearekin zerikusirik, nahiz

eta badagoen ardatz bat eta hori, jakina, nire ahotsak eta harpa zeltak osatzen dute.

Zer du harpak hain eder eta gustagarri gerta dakigun?

Zer edo zer hipnotikoa... Alan Stievelen disko bat entzunda sorgindu ninduen harpak, guztiz. “Harpa jotzen ikasi beharra daukat!”, esan nion neure buruari. Hemen harpa zelta lantzeko aukerarik ez eta harpa klasikoa jotzen ikasituen Baionako kontserbatorioan, 1981-82an.

Hain zuzen, Benito Lertxundik Altabizkar - Itzaltzuko bardoa disko eder hura argitaratu zuen urtean. Kantatu ere egin zenuen disko hartan. Orduantxe jarri zizun Fernando Saldañak harpa eskura...

Bai, hizketan ari ginen, nik harpa jotzen ikasiteko gogoak nengoela esan, eta berak bazuela bat erantzun zidan. Utzi zidan jotzen eta ikasten. Eta nire urtemugarekin batera, oparitu egin zidan! 16 urte nituen.

Nortasun agiria

Olatz Zugasti (Hernani, 1965) musikaria da. Txikitandik du musikarako zaletasuna, aitaren aldetik heldu zaiona. Harpa du musika-tresna, ahots ezinago eztiarekin batera. Kantatzeko modu pertsonala garatu du horrela, dela bakarkako lanetan, dela Benito Lertxundiren taldean. *Kantu baten bila nabil* (1991), *Bulun Bulunka* (1998) eta *Elearen lainoa* (2002) ditu disko bakarka argitaratuak, eta hurrengo prestatze lanetan ari

da. 1981etik hona, berriz, Benitoren disko guztietan hartu du parte, *Altabizkar - Itzaltzuko bardoa* lanean kantatuz geroztik. Garai hartan hasi zen harpa jotzen ikasten. 1995ean hasirik, *Kantaita* irratsaioa egin zuen hamaika urtez Euskadi Irratian, aurretik Egin irratian egiten zuenari segida emanez. Egun, Orioko ikastolako zenbait neska-mutikorekin ere herri kantagintza lantzen ari da.





Gazte!

Zaharra! Instrumentu bat ikasten hasteko, zaharra! Baionan ere, harpa aukeratu nuelako onartu ninduten. Beste musika tresnaren bat izan balitz, ez nuen ikasteko aukerarik izango. Helduegia! Txiki-txikitandik hasi beharra dago. Baionara joan eta ume txikiak ikusten nituen harpa jotzen. Musika egiteko heldutasuna falta izango zuten —nik ordurako, adinagatik besterik ez bazen ere, banuena—, baina teknika ona zuten; haiek nire adinera iristerako egina izango zuten ibilbidea egiteko neukan nik.

Oker ez banago, harpa ikasteko zaletasunak badu beste aurrekari bat ere: Hernanin, Enbor izeneko musika taldea osatu zenuten, Bingen Zupiria buru.

Musikari taldetxo bat zen, folk musika-edo egiten zuena. Taldea osatuta zegoen ni sartu nintzeneko, eta askorik ere ez zuen iraun, nork bere ikasketa bidea hartu zuen-eta. Harpa dela-eta, gogoratzen naiz taldean gine-la, Bingenek, gure liderrak, esan zuela: “Baxu bat falta da talde honetan, eta baten batek harpa ikasi beharko luke!”. Nonbait, hark ere entzuna zuen Alan Stivell eta gainerakoek musika zelta. Horrek piztu zidan grina, lehenbizi.

Kontziente zara harpak entzulearen baitan sortzen duen liluraz?

Ni neu jotzen ari naizenean zaila da entzulearen azalean jartzea, eta berak sentitzen duena asmatzea, baina iruditzen zait niregan sortzen duen lilura sortuko duela beraiegan ere, edo beste inor harpa jotzen entzuten dudanean niri eragiten didan lilura. Hala ere, diferentea da neu ari naizenean jotzen, jotzen ari denari

Isiltasunaren balioa

“Isiltasuna eskertzekoa da. Isiltasunak birbalioztatzen du musika. Esaterako, kontzertu askotan, jendea jarri bitartean, musika ohi da entzungai. Guk ez dugu horrekin bat egiten: publikoa jarri artean, musikarik ez, isiltasuna. Ondoren dator emanaldia”.

soinua ezberdin iristen zaio-eta... Konfiantza daukat jendea iritsiko zaiola, baina ez da gauza sinplea. Bat-bateko lilura da bat, eta lilura horrek irautea, beste bat. Hori beste ahalmen bat da, eta ez naiz ari disko oso bati buruz, kantu bati buruz baizik. Zenbat aldiz, hasi kantu bat entzuten, “zein polit!”, baina kantuak aurrera egin eta ez zaitu harrapatzen! Iraun egin behar da...

Kantuaren barruko mekanismoaz ari zara. Entzuleok ez gara horretaz jabetzen.

Bai, bai, publikoa horretaz ohartzen da, nola ez! Bera da lehena gauza horietaz konturatzen. Publikoa salbaia da. Publikoak ez du jakingo arrazoirik ematen, baina esango du gustatu zaion, kantuarekin bat egin duen, giroan sartu den, ala ez. Gure erronka da publikoa gure ondoan edukitzea, hor. Nik ez dut zalantzarik. Zerbaitek funtzionatzen ez badu behin ere ez dut esango publikoak ez nauela ulertzen. Behin ere ez dut horrelakorik esango. “Ez dut komunikatzen asmatu”, esango dut. Hala da-eta. Komunikatzen baldin baduzu, erantzuna jasoko duzu. Publikoaren aurrean jartzen garenok garbi izan behar dugu hori.

Musika sortzen ari zarenean ere gogoan izaten duzu komunikazio behar hori?

Sortzen ari naizenean sortzea besterik ez daukat buruan, nahiz eta batzuetan interferentzia batzuk egoten diren, tentazio batzuk, jendearengan pentsatzen hastea: “Gustatuko da, ala ez?”. Baina tentazio hori ez da izaten bidelagun onena sortzeko garaian, egiten ari zarenak zu zeu hunkitu behar zaitu lehen, eta gero gerokoak. Bestalde, ez da gutxietsi behar erraz, inorengan pentsatu gabe eta bi trazu-

tan atera zaizun kantua, askotan hura izaten baita egin dituzunetatik hobekien funtzionatu duena eta errazen iritsi dena komunikatzera.

Bi trazutan ala zenbat trazutan ari zara, orain ontzen ari zaren lanean, bidean datorren zure bakarkako laugarren diskoan?

Lanean ari naiz, neure buruarekin borroka pixka bat eginez. Kantu bat egiteko erronka zeharo aberasgarri zait: hitzak alde batetik, doinua bestetik, biak ondo ezkondu beharra... Saiatuagatik ere, funtzionatzen ez badu, bata bestearekin joatekoak ez direlako seinale! Oraingo disko berriari dagokionean, kantuak eginak ditut, nahiz eta zuzenketak egiten ari naizen betiere. "Halako hitz hau... halako errima hori...". Horretan nabil. Ez dakit sekula bukatuko dudan! Orain, berriz, Mixel Ducaurekin ari naiz lanean, bera bide-lagun hartuta, hark duen bagajea lagungarri izango dudalakoan.

Itxaro Bordarenak eta Henriette Airenarenak zenituen aurreko diskoaren hitzak. Norekin ari zara orain?

Badira nireak, bada bat Joxe Ramon Uriarte bermeotarrarena, eta beste hiruzpalau ditut Brendan Graham irlandar kantugilearenak. Grahamenetan, batean doinua interesatu zitzaidan; hitzak neuk jarri dizkiot, ikastola gogoan harturik. Ikastolak presentzia handia du gure herrian, baina betiere, batez ere 93ko legearen ondoren, eta kontzertatuekiko gogorarazi egin behar ikastola zer den, nor garen, nondik gatozen, zergatik erabaki zuen bi aukeraren artean kontzertatu izatera pasatzea, herriak sortutako instituzioa dela, ikastola dugula gure eskola nazionala... Ideia hori hartu eta ikastolak herriari egiten dion amodio kantua da hau, Brendan Grahamen irlandar doinua baliatuz. Baimena eskatu genion, eta berak hitzak eta kantuaren behin-behineko grabazioa eskatu zizkigun. Egin genuen, bidali genion, eta gizonaren e-mail

Industriaren sasoia

"Musikaren industria krisian ote dagoen, pirateria, Internet bidezko deskargak... Ez diot tokirik egiten horri, niregan kezka bihur dadin. Beharbada, nire ekoizpen bolumena ere ez delako bereziki handia. Arautu beharreko arloa iruditzen zait, hainbat herrialdetan egin den bezala; Frantzia, esaterako. Dena den, Internetez erosten den musikak ez du disko salmenta ordezkatu. Trantsizio garai batean gaudela esango nuke. Konfiantza dut, jendea ezin da-eta musika gabe bizi, gure kulturaren oso errotuta dugu, musikariak musika egiten jarraituko du, baina horretarako, dagokion ordainsaria behar du artistak, musika ekoiztea kosta egiten da-eta".

bidezko erantzuna, zorionak emanez, inoiz entzun duen kantuaren bertsiorik politena, distiratsuen delaren esanez.

Bejondeizuela!

Beste kantu batzuk ere bidali zizkidan, eta itzuli ere egin ditut euskarara, eta egokitu. Eta hortik ere etorriko da kanturik. Disko berrian bizpahiru kantu Grahamenak izango dira.

Kantu baten bila dabil oraindik Olatz Zugasti?

Eginkizun amaigabea da hori. Kantuan nire bi pasioak uztartzen dira: alde batetik, euskarra, gure hizkuntza. Kantuak euskaraz sortu ahal izatea eta hor urratsak ematea oso zirraragarria zait. Bestetik, musika bera. Gainera, disko honek "kantaita" hitza eramango du izenean.

Hara hor, azaldu da Kantaita!

Kantaita uheran izango du izena. "Kantaita" hitza, azken finean, geuk ekarri genuen Euskadi Irratiko saio hartara. "Kantu" esan nahi du, dakizunez.

Hamaikatan entzun genuen programa bikaina. Munduko herri musikak gureganatzen egindako lan zoragarria, kito halako batean. Happy end, ala amaiera traumatikoa?

Traumatikoa izan zen. Ez, hala ere, schocka izan zelako, bukatzera zetoirela ikusten zen-eta. Hamabi-hamahiru urtez egin nuen saioa, 1995ean hasita. Hasieran, asteburuan zen. Arrakasta izan zuen, oso harrera ona, eta, orduan, egunerokoa izatera igaro zen. Urterik politenak, dudarik gabe. Ondoren, asteburura aldatu zuten berriz. Eta, azken-azkenean, asteburuan bai baina egun bakar batez nahi omen zuten. Eta utzi egin nuen.

Disko berriak izango duen azalak erakutsiko duenez, Kantaita hartako izpirituak bizirik irauten du zure gogoan.

Saio hark asko erakutsi zidan musikari buruz.



ERMUA

Maiatzaren 13tik 16ra, Kardenal Orben

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



AZKEN HITZA

Benito Lertxundi

“Olatz Zugasti naiz, eta Benito Lertxundiren taldeko musikaria, Pello Ramirez, Juantxo Zeberio, Joxemari Irastorza, Anjel Unzu, Kutxo Otxoa de Eribe, Fernando Ederra eta Gurutz Bikuña bezala. Niretzat hori duintasun handiko lana da, kantari bati lagundu ahal izatea, hari lana erraztu eta bere onena ematen laguntzeko”.

Lan hura ikasbide izan nuen. Hainbeste musika entzun, kultura ezagutu... Kultur aniztasun ikaragarria zegoen *Kantaitan*. Gauza exotikoak erakusten hasi nintzen. Hori zen nire aurkezpen txartela. “Ea kanpoan zer egiten den, ikus dezagun!”. Hemengo taldeak programa entzuten eta beren proposamen, lan eta diskoak bidaltzen hasi zitzaizkidan –gogoan daukat Azkoitiko Akauzazte taldeak bidalitako lata bat, esaterako–, eta haien eta beste batzuen deia ulertu nuen: “Beren musika ere sar dezadan nahi dute”. Horrela egin nion tarte euskal musikari ere. Eta hasi nintzen, herri musika hartuz irizpide, dena ezin nuen sartu eta, saio espezializatua baitzen.

Kantaita irratsaio bidezko herri musika bukatu zen, baina arlo berean ari zara orain Orioko ikastolan.

Ikastolak kantagintza lantzea erabaki zuen. Lehenengo, korua osatzea ere esan izan zen, baina koruak era askotako selekzioa dakar eta ez nuen bide hori garatu. Aldiz, taldetxoak osatu genituen, kantua lantzeko. Haietako batek fruitua eman du, Olaxka taldeak, eskusoinua jotzen duen mutil baten inguruan. 4 urte zituela hasi zen soinua jotzen, bere kasa. Dohain apartak ditu, artista hutsa da. Inguruan zenbait kantari ditu, berezko gaitasuna eta grazia dutenak. Brendan Grahami bidalitako kantuaren grabazioan ere horiek kantatu dute. Hasi ginenetik, ikusirik eskusoinua bagenuela eta talde txikia ginela, euskal kantagintza tradizionala berreskuratzen saiatu gara, kantutegietan dauden lanak aztertzen, taldearentzako egokienak aukeratzen, moldatzen eta ikasten. Hori eginda, bigarren aldi batean, *Kantaitan* erabilitako zenbait doinu hartu eta hitzak jartzen, kantuak sortzen jardun dugu.

Ez ote luke gure herriko musikak Euskal Herriko ikastetxe guztietako derrigorrezko curriculumean agertu beharko?

Ezinbestekoa iruditzen zait. Behar luke. Euskal Herriko kantu tradizionalak ezagutzea izan beharko luke musika ikasgaiaren helburua. Eta ez kantagintza modernoan dauden kantuak edo popularrenak bakarrik, kantutegiak ezagutu beharko lirakeke, han diren altxorak. Musika bidez, hizkuntza bera ere ikasiko genuke, hainbat euskalkitako kantuak ditugu-eta. Bi txori botako genituzke harri bakarraz. Gero musika eskoletan eta kontserbatorioetan egiten dena beste urrats bat izango litzateke, baina oinarrian, ikastoletan-eta, musika ikasgaiak euskal kantutegi tradizionalaren ezagutza bermatu beharko luke.

Zer lotura dute zuk Orioko ikastolan egiten duzun lanak, eta neska koxkor zinen garaian Hernaniko Urumea ikastolan Benito Lertxundik ematen zituen herri-musika eskolek?

Antzeko lana izan liteke, baina kontua da Lertxundik pulamentu eskasa zuela guri erakusten! Kar, kar, kar... Eskola hura ez zen borondatezkoa, ordea, derrigorra baizik, eta askotan umeek ez zuten hartarako gogorik edo motibaziorik. Uste dut neu joaten nintzela gustuena eskola haietara. Kantagintza beti interesatu izan zait, familiarik datorkit. Etxean bertan, Ez Dok Amairukoen diskoak genituen, Benitorenak tartean. Eta Benito bera ikastolan musika irakasle izatea gozamenen niretzat. Askok ez zuten nire gogorik. Gaur egun, gure kasuan, Orioko ikastolan, eskolaz kanpoko jarduerak izaki beren gogoz dotoz etorri nahi dutenak. Horrek asko laguntzen du. ■

• Luis Otaño •

«Vuelta minutu erdiagatik galdu nuen Poulidourrekin»

1960ko hamarkadan, Luis Otaño Arzelusek (Errenteria, 1934) bitan irabazi zuen Espainiako Txapelketa, eta Tourrean hamar alditan hartu zuen parte. ARGIAra ekarri ditugu garai hartako txirrindularitzari buruz Otañok *Hernaniko Kronika* egunkariari kontatuak.

DANI LLOPIS IRAZUSTA

Txirrindulari langilea zinen, Luis.

Langilea, eta denei laguntzen saiatzen zena. Pelotoiko bat gehiago. Gaur egunean gregario deitzen dieten horietakoa nintzen ni.

Profesionalak saltoa Peugeot taldearekin egin zenuen.

1959an izan zen, Peugeot etxearekin. Kotxeak, bizikletak eta motoak egiten zituztenekin. Atera ginen Eibar-Gasteiz erlojupekoan, Elgeta, Durango eta Urkiolatik. Ziklis-

tek egiten dituzten erlojupekoak, gaur eguneak kexatzeko modukoak omen dira, baina garai hartakoak 80 kilometro ingurukoak ziren... Erlojupeko horretan ni atzera xamar atera nintzen, eta nire atzetik irten zen Roger Riviere frantziarrak (Peugeot taldeko liderra) irabazi zuen. Suarezek bigarren egin zuen, eta nik hirugarren. Rivierek ez ninduen harrapatu Gasteizera iritsi arte eta esan zuen: 'Gazte hori nire taldean nahi dut'. Peugeotetakoek niregatik galdetu zuten eta Frantziara eraman




ninduten. 1960 eta 1961ean egon nintzen ekipo hartan Europa osoko jendearekin. Holandarrak, alemaniarak, belgikarrak eta ingelesak zeuden ekipo hartan baina futbolearen bezala, urte haietan atzeritar kopurua mugatzea erabaki zuten. Orduan sortu zen Margnat-Paloma taldea, Bahamontes, Campillo eta nirekin. Marseillako taldea zen: Margnat ardoagatik, Paloma bizikletengatik eta Motul olioaren publizitatearekin joaten ginen. Bertan geunden estatu espainiarreko hirurei *los tres mosqueteros* [hiru mosketariak] deitzen ziguten.

Pelotoiko mito askorekin ibili zinen urte horietan: Coppi, Riviere, Anquetil, Poulidour, Van Looy, Stablinski, Gimondi, Merckx... Nolako erlazioa zenuen beraiekin?

Merckxekin gutxitan egon nintzen, nire karrera amaieran baino ez. Lasterketa bakar batzuetan izan zen Belgika aldean. Gaur egunean pelotoiko oilarrak nahiko paretsu dabil-tza, baina garai hartan gehiago nabarmentzen ziren. Guk garai haietan ez genuen medikurik ere. Ez bitaminarik ez ezer; guk ere EPOa izan bagenu garai haietan hartuko genuen, e... [ironiaz]. Orduan bakoitza bere etxera joaten zen, bi plater babarrun hartu, eta aurrera egiten genuen. Horrekin ere baloratu behar dira txirrindulari handiak. Anquetil eta Poulidour oso onak ziren eta beraien arteko lehiak izugarriak ziren. Bi haien anekdota bat kontatuko dizut. Anquetil osasunez oso gaizki zegoelarik Poulidour-i esan omen zioten ea ez ote zuen joan behar ospitalera bere arerioari bisita egitera. Azkenean, Jacques Anquetil handia ikustera joan zen ospitalera. Anquetil azkenean zegoen eta Poulidour, beti Anquetilen itzalean ibili zen txirrindulari frantziarra, bisitan joan zitzaionean zera esan zion: 'Ni lasterketetan beti zure aurretik ibili naiz eta orain ere hala izango da heriotzaren orduan'. Poulidor gainera *pesetero* samarra zen. Tourreko etapa batean biok gindoazen Manzaneque eta Bahamontesekin batera, eta Poulidor zen liderra. Dirua eskaini zidan, Anquetilen kontra laguntzeko. Nik 'zenbat?' galdetu nion, eta hark ez zidan erantzun. Nik, noski, ez nuen tiratu. 20 kilometroren faltan harra-patu gintuzten eta Poulidor errepidetako zulo batean sartu eta erori zen. Erorikoak sortutako haserreagatik eta bizikleta aldatzeagatik bi minutu eta lidergoa galdu zituen helmugan.

Peña Otaño Hernaniko elkarteko sortzaileak nola ezagutu zenituen?

Soldaduskan ibili nintzen beraiekin. Joxe Santana, Lareki eta Patxi Gorospe ziren soldaduskan ezagutu nituenak eta nire omenez jarri zioten izena elkarteari. Hasieran Oarso



"Poulidour *pesetero* samarra zen. Tourreko etapa batean dirua eskaini zidan, Anquetilen kontra laguntzeko. Nik 'zenbat?' galdetu nion, eta ez zidan erantzun. Nik, noski, ez nuen tiratu"

kalean zuten lokala eta geroago etorri ziren gaur egunekora. Batzuk karreretara etortzen ziren ni animatzera eta asko estimatzen nuen.

Nola egiten zenituzten zuek lasterketak?

Goizeko 5ak eta 8ak artean esnatzen ginen lasterketaren irteera orduaren eta kilometro kopuruaren arabera. Arroz plater bat hartu eta errepidera. Gutxienez 160 km. egiten



CHILLIDA LEKU MUSEOA

Jauregi Auzoa 66 E • 20120 HERNANI • T 943 33 60 06
chillida@museochillidaleku.com • www.museochillidaleku.com



**"Tourreko errepideetan,
mendietako urak jaisteko
kanalak egoten ziren eta ur hori
oso hotza etortzen zen. Hankak
moztu egiten zizkigun"**

genituen, eta etapa luzeenak 330 km. izatera iritsi zitezkeen. 240-250 km.-ko etapak normalak ziren. Nik egin nuen azkeneko Tourrean gogoratzen dut 300 km.-tik gorako etapa: goizeko 5etan aterata ginen, eguzkia oraindik aterata ez zenean. Enarak hortxe zebiltzan kantari izugarritzko garrasiekin. Gaur egunekoarekin alde ederra zegoen. Gu Hamabi-hamalau bat ginen taldean: bi mekaniko, bi masajista eta txirrindulariak. Askotan pentsioetan egin behar izaten genuen lo. Hara iritsi eta '4. pisua' esaten zigun harrerakoak, bizikleta bizkar gainean hartu eta gora. Ziklismoak hobera egin du azkeneko urteetan, gu esklaboak ginen.

Besteentzako lan eginda ere palmares ona bildu duzu, ez?

Beno, ez da horrenbesterako. Orain bizikletan ibiltzen direnek hobia lortu dute, e!

Bourg d'Osains-en garaile izan zinen Tourrean. Etapa hori nola irabazi zenuen?

Tourrean bazeuden Donostiako txirrindularitzako epaile pare bat eta orduan Frantziara karrera ikustera jende asko hurbiltzen zen. Bi epaile horiek esan zidaten: 'Bihar eraso jo behar duzu!'. Aurreko egunean erlojupekoa izan genuen eta nik lasai hartu nuen hurrengo egunerako indarrak gordetzeko. Pentsatua nuen zein maldatan edo zein tokitan eraso jo, eta indar handiz aterata nintzen. Nirekin pelotoitik aterata ziren zenbait ziklistek oihukatzen zidaten mantsoago joateko, baina niri mantso erlojupekoan tokatzen zitzaidala erantzun nien. Erasoari eutsi zioten bakarrak Julio Jiménez eta Galera espainiarrak izan ziren eta gurpilean eraman nituen goraino. Beherakoari indartsu ekin nion eta hauek ere kexatu egin ziren azkarregi jaisten ari nintzelako. Bideak zulo ugari zeuzkan eta bizikleta dominatzea oso zaila zen. Horren ondorioz, zulo horietako batean sartu ondoren bidetik aterata nintzen eta bazterrean zegoen zutabeari heldu nion ez erortzeko. Zutabeari helduta, bi buelta eman nituen bizikletatik erori gabe, eta bidera bueltatzea lortu nuen. Horrelako jaitziera arriskutsua eginez, Jiménez eta Galera gurpiletik aterata nituen, eta horrela iritsi nintzen Bourg d'Osains-eko helmugara lehenengo postuan.

Espainiako itzulian ere ederki aritzen zinen. Hiru etapa irabazi, bost egun maillot horiarekin eta sailkapen orokorrean bigarren egitea lortu zenuen. Gainera etapa horietako bat Donostian irabazi zenuen eta horiz jantzi zinen. Ederra izango zen Atotxako belodromoan garaile sartzea eta Vueltako lidergoa eskuratzea.

Bai, esaten zuten, etapa horretan, Perez Francese (nire taldekideak) Poulidour gurpilean ekarri zuela helmugaraino; eta gero Madrilen Poulidourrekin galdu nuen Espainiako Vuelta 30 segundorengatik. Etapa hori Iruñetik aterata zen eta Elizondora iristean Gómez espainiarrak salto egin zuen pelotoitik eta bere atzetik Momeñe, Barrutia, Uriona, Fulgencio Sánchez, Beltrán, Cazala, Melckenbeeck, Desmet eta ni neu aterata ginen. Aritxulegin gora egin nuen eraso eta gero beherakoan ere dena eman nuen. Jaisten ari nintzela oiartzuar bati entzun nion, 'honek ez dik bizia asko estimatzen...'. Belodromora bakarrik iritsi nintzen eta belodromo barruan buelta ematea bakarrik falta zitzaidanean, lasterketako epaileak zen hernaniar batek gaizki seinalez tatu zidan

belodromorako sarrera. Alderantzizko zentzuan eman nuen belodromoko buelta eta nire atzetik zetozen txirrindulariak parez pare aurkitu nituen Atotxako belodromoaren barruan. Agian nik ulertu nion gaizki, baina azkenean etapa irabazi nuen.

Orduko kronistek zioten negar malkoak ikusi zitzaizkizula Madrilgo podiumean. Zergatik izan ziren: txapeldunorde izatea lortzeak eman zizun pozarengatik ala bigarren gelditzearen penarengatik?

Nik kirol lege hartu nuen Vuelta hartako emaitza. Kirola da eta besteak irabazi egin zidan. Poulidour ni baino gehiago izan zen eta listo, ez zaizkio buelta gehiago eman behar.

Egia al da Italiara bizikletan joan zinela Munduko Txapelketarako entrenatzeko?

Bai, Munduko Txapelketa Italian egitekoa zen eta entrenatzaileak esan zigun bizikletan joango ginela Bresciaraino. Bera autoan joaten zen gure aurretik eta hotelak hartzen zituen guk lo egiteko. Saint Etienneetik atera ginen, ni bertan bizi nintzelako, eta Alpeak pasa ondoren eta gutxi gorabehera 700 km. bizikleta gainean egin eta gero Como-ko Lakura iritsi ginen hiru egunetan. Saint Etienneetik ere batzuetan Erreteriaraino joaten

nintzen. Gauez abiatu eta goizerako etxean izaten nintzen.

Txirrindularitzan aritzen zineneko lagunak mantentzen dituzu?

Bai, asko. Karlos Etxeberria, Anton Barrutia, Vélez, San Miguel, Gandarias... Gehienak bizkaitarrak dira, baina gipuzkoarrak ere badituzte: adibidez, Txomin Perurena edo Irigorri. Frantziar eta belgikar batzuekin ere erlazioa mantentzen dut oraindik. Duela gutxi bildu ginen Darrigaderi omenaldia egiteko.

Zer ziren gogorrangoak, Frantziako Tourreko mendateak ala Italiako Girokoak?

Tourmalet da sekula igo dudan mendaterik gogorrena. Niretzat bai gutxienez. Mendate luzeetan ez nintzen ondo moldatzen... indarrez igotzen baintuen. Hemen inguruko mendietan ez nuen beste txirrindulariekiko tarte handirik galtzen, baina Tourreko aldapa luze horietan... Gainera, garai haietan ez zeuden gaur bezala asfaltatuta. Errepide erdian mendietako urak jaisteko kanalak egoten ziren eta ur hori oso hotza etortzen zen. Ur horrek hankak moztu egiten zizkizun. Italiako Giroko mendateak ez ditut ezagutzen, ez nuen bertan sekula korritu. ■

**Irakurri Elhuyar
aldizkaria
zure ordenagailu
berritik**

eta %20 merkeago!

Uztaila baino lehen Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkariak harpide egiten bazara, urteko harpidetzan % 20ko deskontua lortzeaz gain ordenagailu ultraeramangarri baten zozketan sartuko zara.

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin
+34 943 36 30 40 zenbakira.


Harpidetza internet bidez egiteko, sartu
<http://www.zientzia.net/elhuyar> webgunean
edo idatzi mezu bat **harpidetza@elhuyar.com**
helbidera.



zientziaren
ELHUYAR
komunitateak

mutualiaren
laguntzari esker

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 36 30 40 · Faxe: 943 36 31 44



NOBEDADEA



Atlantika

zibilizazioen kode ezkutua



29 euro

ARGIAREN harpidedunek
%15eko deskontua

Argitu ezazu antzinako zibilizazioen
kode ezkutua eta bizi milaka abentura
jainkoen laguntzarekin.



+8



2-4



20-40 min.

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

LudiToys

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Engendrokronologia

A

tzean historia luzea duen Andueza base-
rrian Zegamako turis-
mo-bulegoa eta Egu-
rraren interpretazio

DANI BLANCO



Jose Luis Padron



Ixiar Rozas



Ana Urkiza

zentroa lekutzen dira gaur. Interpretazio-zentro horren helburua, Euskal Herriko nahiz atzerriko zuhaitz eta zuhaixken egurraren ezaugarri eta erabile-
rak ezagutaraztea da. 173 zuhaitz-espezie ezberdinen enborrak daude ikusgai. Enbor hauek guztiak Imanol Artola Zegamako basozai-
nak bildu ditu urtetan zehar. Bisita egin nuenean zuhaitzaren bizitza markatzen duten enborreko eraztunak ikusten hartu nuen zirrararik hunkiga-
rriena. Dendrokronologia da zuhaitzaren adina, bere ingurunea eta historia azaltzen dizkigun zientzia. Hazkuntza-eraz-
tunak enborrean agertzen diren zirkuluak dira. Zuhaitz-enborraren eba-
kiduran agertzen diren eraztunak kontatuz, zuhaitzaren adina eta his-
toria jakin daitezke. Eraz-
tun guztiak ez dira berdi-
nak, batzuk zabalagoak dira eta beste batzuk estuagoak, ezberdintasun-
ek urte bakoitzean izan-
dako eguraldia edo zuhai-
tzak jasandako gaitzak ematen dituzte aditzera. Zuhaitzak gazteak dire-
nean gehiago hazten dira helduak direnean baino. Hori dela eta, enborraren barrualdeko eraztunak lodiagoak izan ohi dira kanpoaldekoak baino. Eraztun horiek dituzten zuhaitzek beren bizitza eta historia idatzita daramatela esan daite-
ke eta, urratsez urrats, historiako liburu baten orrialdeak bezala aztertu eta irakurtzea besterik ez dago. Gure sailaren ideari ere halako itxura hartzen diot neurri handi batean: eraztunak lagun egina bizi da. Inguru berean eta sasoi berdint-
suan hazi diren enborraren eraztunak dira gure artikuluak, eta lehen begirada nahikoa da ondo-
rengo idazlanaren ildo nagusiak atera eta beste

gauza asko ere azaleratzeko. Zenbat eta eraztun gehiago sartu eta denboran atzerago joan, hainbat hobe eta zehatzagoa izango da tta-
kun-basea. Bizirik jarraitzen duten eraztun zaharragoen ttakunak eta berriki sortuta-
koenak gainjarrita azaltzen dira gure “borondate baiko-
rraren” ibilbide kronologi-
koa zehaztu arte. Eta eraztun-harreman horren gauzarik inportanteena elkarrekin pentsa-
tzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, eta baita norbera izateko sustraiak ere ditugula ziurtatzea da. Zuengan dut orain interesa, Ana eta Ixiarren, proposatzen ari zareten errealitatean, eta zuen sortzeko ahalmenean. Baina ez dut nire inguruan konfiantzarik. Engen-
drokronologia baten datu-basea baino besterik ez baitut ikusten ingu-
ruan, eta horrek mikaztu egiten du nire diskurtsoa. Engendrokronologia bai, hori besterik ez baitute betikotuko Eusko Jaurla-
ritzak aurkeztu berri duen Bakearen Aldeko Hez-
kuntza Plana ikastoletan sartzen badute. Ez al gara jada gu guztiok gatazka-
ren drama eta ikararen munstro nahiko itsusiak? Zergatik haurrak orain hain modu krudelean

zigortu, zuek politikariek zuen artean konpon-
tzen jakin ez duzuen miseria eta arazoekin? Bikti-
mei nire giza elkartasuna, baina, mesedez, utzi haurrak bakean! Utzi irakasleek beraiek elkarbizitza, adiskidetzeta eta bakea bezalako balioetan hezi ditzaten, baina, mesedez, ez haurrei errua bota, ez euskal haurrak Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak zuzendutako eskolaren giza engendro bihurtu!

zigortu, zuek politikariek zuen artean konpon-
tzen jakin ez duzuen miseria eta arazoekin? Bikti-
mei nire giza elkartasuna, baina, mesedez, utzi haurrak bakean! Utzi irakasleek beraiek elkarbizitza, adiskidetzeta eta bakea bezalako balioetan hezi ditzaten, baina, mesedez, ez haurrei errua bota, ez euskal haurrak Espainiako Barne Arazo-
etako Ministerioak zuzendutako eskolaren giza engendro bihurtu! Zer ikasiko dute gainera, Samaranch “Eraztunen Jauna” frankismoaren diktaduran fusilatuei ezkontza-eraztunak eskue-
tatik lapurtzen zizkieten pelotoien lagun peto-
petoa kirol olinpiarren mesedetan egin zela? ■

Pako Sodupe

IDAZLEA

Tortura ukatzen jarraitzeko!



edabide gehienetan ukatu eta/edo ezkutatu egiten da. Jesus Egigurenek adierazi berri du esaten dietela torturarik ez dagoela eta kontsignak daudela edozein atxilotzen denean tortura salatzeke: egia-egia jakitea zaila izango da eta, beharbada, egon dira kasuren batzuk; baina, tira, orduan saiatu behar da epailearen bitartez justizia egiten.

Itsuturik ez gauden euskaldun guztiok dakigu eta hein nimiño batean bakarrik irudika dezakegu Joan Mari Torrealdaik eta gainerakoek zer jasan zuten –horiekin hala ariturik, akusazio larriagoak egotzen dizkietenekin nola arituko ote dira?!–, eta zer jasan litekeen 120 ordutan inkomunikaturik polizien esku. Bi tiro hilgarri hartzea hobe, hortik pasatzea baino!

Egigurenek aitortzen du: kasuren batzuetan... orduan epaileak egin behar du justizia. Bermudez epaileak Egunkariakoan: *“En la valoración de las declaraciones de los procesados tiene especial relevancia que las denuncias de estos sobre malos tratos y torturas sufridos durante la detención incomunicada –que fueron relatadas con detalle en la vista oral y antes ante el instructor y objeto de denuncia en los tribunales– son compatibles con lo expuesto en los informes médico forenses emitidos tras ser reconocidos en el centro de detención, si bien el Tribunal no puede lle-*



DANI BLANCO

gar a conclusiones jurídico penalmente relevantes sobre el particular salvo constatar que no hubo un control judicial suficiente y eficiente de las condiciones de la incomunicación”.

Horretaz ari al da Egiguren? Hori Gasteizko Legebiltzarreko ordezkari politikoei eta Madrilekoek duten erantzukizuna –zenbat eta ordezkari gehiago orduan eta handiagoa– bi epelkeriarekin ezabatzea da. Egunkariari buruzko epai onaren ondorioak ezabatzeko abokatu eta gainerakoek atxiloteta etorri da, eta berriz ere torturak. Denek ez dituzte torturak salatu Acebesen asmakeriaren jarraitzaileek dioten bezala, jasan dituztenek bakarrik –Frantzian ez dute hitz egiten eta ez dute tratatu txarrik salatzen–.


Sozialistek oraindik beste urrats bat aurrerago eman dute Ertzaintzaren izen ona aldeztarren, modurik ankerrenean; ikerketarik ez; guk hala diogu eta hala da: tortura salaketak ez ditugu ikertuko, eta salatzen dituenak berak frogatu beharko du torturatu dutela, eta gu saiatuko gara gure baliabide guztiekin zein onak garen erakusten. Agintekeria lotsagarriagorik!

Moralgabekeria politikoa izugarri hau salatu gabe onartzea duintasun guztia galtzea da. Eskandalu bat da, eta hala hartua behar luke. ■

Sozialistek oraindik beste urrats bat aurrerago eman dute Ertzaintzaren izen ona aldeztarren, modurik ankerrenean; ikerketarik ez; guk hala diogu eta hala da

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Egoeran omen dago Rafa Diezen ama, eta Garzonek hura zaindu dezan kartzelatik baldintzapeko askatasunean uztea erabaki du, sosa berme. Egunero erosten dudan kazeta erdal mundutatik erakarrirakoak euskalduntzea behartua da. Horrek ere bere mendekotasuna du. Dependencia, dépendence. Mendekotasuna hobetsi du kazetariak Rafaren amarena adierazteko. Eta niri, arrotza egin zait. Ezindua, elbarritua, bere burua gobernatzeko ezigauza dela esan nahi baldin bazuen, semearekiko mendekotasunera behartua dela idaztea ez zait egokia iruditu, lagundua, zaindua behar duena ez

Mendekotasun

baita zaintzailearen mendekoa berez. Honetan mendekoa Rafa bera dugu, Garzonek bere mendean hartutakoa bera da inongo zainketa behar ez duena, bere burua gobernatzeko aski dena. Eta hala ere, bere burua astero aurkeztu behar dio poliziarri menderatzailearen aginduz. Beraz, ez dira egoerak nahasi behar, menderatua menderatzailearen lekuan emanez. Hiztegiekiko mendekotasuna ere bada, hizkuntza batean sortutakoak beste hizkuntza batean ordezkatzeko delarik. Eta honetatik adibideen eskasian ez gara bizi euskaldunak, zenbaitetan euskaraz irakurritakoa ulertzeko erdaratu behar izaten dugularik. Rafa libre eta bere ama zaindua. ■

Mikel Zurtsano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Euroaren ajea

Finantza erregulaziorako asmo xumeak ahitu dira eta rating agentziek eta finantza erakundeek lehengora itzulita finantza merkatuen nagusitasuna berreskuratu dute. Eragile hauen agenda, prozedurak eta lehentasunak antzestoki makroekonomiko globala inoiz baino indartsuago baldintzatzen dute eta horrekin krisiaren bidezko irtenbidea bera ere. Egoera honi aurre egiteko gobernantza globalaren gabezia bistakoa da eta koordinaziorik zein berrikuntzarik gabeko barne neurrietara makurtu dira estatuak. EBn Greziaren finantza larrialdiari aurre egiteko erreskate plana hitzartu berri da azken unean, euroak jasandako eraso espekulatuaren segida batek hartara beharturik.

Krisiak Europaren eraikuntza neoliberalaren berezko tentsioak leherrarazi ditu, herrialde batzuk (Grazia eta Espainia barne) Hazkundera eta Egonkortasun Itunaren mugak gaindita finantza eragileen erasoak jasan eta gero. Lehen Alemaniari edo Frantziari malgutasuna eskaini zitelarik oraingoan Brusela bestela jokatzeko ari da. Grezian austeritate plan oso zorrotza jarri du indarrean dirulaguntzen ordain gisa, NMFArekin batera. Lehendik garapen bideko herrialdeetan porrot egindako doikuntza planen errepika baino ez da hau. Plan horien neurri liberal zorrotzak ez



DANI BLANCO

ezik emaitza ere ezaguna da, austeritate ekonomikoa eta finantzen nagusitasun osoa. Oso errezeta arriskutsua ikuspegi sozialetik eta antzua krisia gainditzeko. Duela lau urte Egonkortasun Itunaren gainetik pasa ondoren Alemaniak euroaren logika zorrotza aplikatu nahi izan du, orain Grazia Europako gobernuetan indarrean jarriko diren austeritate planetarako laborategi gisa erabilita eta, bide batez, Alemaniako bankuek eskuratutako greziar bonoen ordainketa ziurtatzen dute.

Testuinguru honetan eta erasoak jasan ondoren, Zapateroren gobernuak ere larritasunetik ateratzeko erakunde multilateralen eta finantza lobbyen errezetak aplikatzen hasi da. Bere programa ekonomikoaren izaera liberala areagotzen ari da, orain arteko egitasmoen —bankuentzako erreskatea, austeritate fiskalarena, eta abar— zatikako erreforma liberalak (pentsioena eta lan merkatuarena) gehituz. Lehengo lepotik burua, krisia sorrarazi zuen ereduak inoiz baino biziago dago EBn, Trichet eta bertako finantza erakundearen esanetara jarrita Bruselak ez du iragarritako neurriak hartuko, ezta bankuen erreskaterako tasa ezartzeko ere. Beraz, bankuen erreskaterako orain arte erabilitako EBko BPGaren %13 denon artean ordaintzen jarraitu beharoko dugu. ■

«
Lehengo lepotik burua,
krisia sorrarazi zuen ereduak
inoiz baino biziago
dago EBn
»

TXANDAN

Igor Estankona



Antza denez ekonomiagatik, nahasketak ekiditeko eta erakundearen irudi politika argiagotzeko izan dadin, Euskal Herriko Unibertsitateak euskarazko akronimoak soilik erabili gura lituzke. Horra arte normal iritzi diot nik behintzat, izenaren zehaztasuna gorabehera. *El Correo Español*ekoek diote, ostera, “Hezkuntza Sailak izenetik erdarazko siglak kentzeko UPVren proposamena arbuatu” duela. Euskarazko siglak inoiz erabili ez dituztenentzat, kazeta barne, terriblerik izan behar du horrek benetan: horiek kenduz gero siglarik gabe adierazi beharko lukete unibertsitatearen izena. Eta ez da erraza.

UPV/EHU

Baina kontraesanak ekiditeko kazetariok hasi dira sartzen, auziari buruzko egunkari-albistee-tan, lehenengoz, “UPV/EHU” izendapena, barra eta guzti. Master eta negozioetarako beti errespetatu izan dute, egia esan behar bada.

Ikusmin soziologiko sanoarekin jarraitu ditut kazetari elebakarraren peripeziak egunokaz. Trilinguismoa ahotan, dio, gauzek ez ote duten luzatzeraz jotzen gaur egun, laburtzeraz baino gehiago. Entzun dudanez, euren tirada ei da gero eta laburragoa. Ez nau harritzen. Bizkaitarroi adarra jotzen ibili dira ehun urtez, eta ez da gaitzik ehun urteko aldiak ez daroanik. ■

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Ad infinitum?

Eavier Cercas idazleari irakurri nion *El País* Semanaleko *Palos de ciego* artikuluan: “Balizko mirari espainiarrarena gezur hutsa zen. Ekonomia, izan, adreilua-
ren eta kontsumoaren ilusio bikoitzak sortutako mamua zen: dagoeneko adreilua amaitua da eta, kontsumoa, hondoratua; langabezia eta zorra ez bezala, hazkundera gelditu egin da. Zapatero, orain, mamu bat da, buruarin xaloki baikorra, imintziolaria eta ezjakina, inoren konfiantza merezi ez duena, eta Espainia frankismoa gainditu —eta gaindituko— ez duen herrialdea da, apenas demokrati-koa eta iraganari aurrez aurre begiratzeko gai ez dena”.

Ignacio Echevarría kritikoari irakurri diot *El Mundoko Culturalen Nanas del centenario* artikuluan: Miguel Hernandez poetaren mendeurrena dela eta, itxurakeria hutsean dabilta M^a Teresa Fdez. de la Vega nahiz PPko agintariak; poeta, ez gaitezen engaina, komu-
nista eta errepublikazalea zen, eta orain xinpletu eta desitxuratu egin dute haren pentsamendua “teknosozialdemokrazia-
ren hizkera mordoilora ekarriz” denok gaude zapalkuntzaren kontra eta aska-
tasunaren alde, biba gul; eta ez dute lotsarik ospakizunerako eratutako komisi-
oan nortzuk eta errege-erregi-
nak buru izendatzeko.

Pedro Ugarte idazleari *Pactos secretos* nobelan irakurri nion: “Lopategik naturaltasunez gauzatzen zituen zen-
bait pribilegio, hainbestearino non ez baitzituen pribilegiotzat hartzen. Gobernu-
ko presidentearekin nahierara afaltzen zuen, gutziatsa, baita egunkari-
buruekin ere —edo haien jabeekin—, adminis-
trazio kontseiluetan elkartu egi-
ten zen politika edo finantza munduko
goi-goï mailako jauntxoekin. Aurrese-
nitzen zuen bai prentsa bai parlamentua
entitate fantasmalak zirela eta, demokra-
zia, garesti ordaintzen zen antzezpen



DANI BLANCO

Anjel Lertxundiri irakurritakoak


Javier Cercas idazleari *El País*

Semanaleko *Palos de ciego*

artikuluan irakurritakoa

ekarri zidan gogora,

eta...



irudia:

Antton Olariaga

gisako bat izan arren, gutxienez, jende xumea matxinatzeko arrazoigabetu egi-
ten zuela. Bere kontzientziaren irudime-
nezko kontadurian, demokrazia egin
beharreko gastua zen, bere enpresen
segurtasun neurrietarako egiten zituen
inbertsioen parekoa. Abstraktu gisako
zerbait zen, zinpeko zaintzaile inmате-
rialia, jainkozko inspirazioa eta alimaleko
neurriak zituen”.

Carlo Frabetti idazleari irakurri diot *Garako La izquierda glamurosa se queda en garzoncillos* artikuluan: Goya sarien ekitaldi entzutetsuan “Gerrari ez” leloari, lotsagabeki “ETari ez” erantsi nahi izan zio-
ten, eta, berriki, Haminatu Haida-
ren alde agertu ziren kulturgileek,
bide batez, Prisa taldearen aginduz,
disidente kubatarren aldeko jarrera
erakutsi behar izan zuten: “Herri
sahararraren independentziaren
aldeko borroka Washingtonek
babestutako sasidisidentziarekin
konparagarria balitz bezala (...).

Frankismoaren krimenak ikertu eta
osatu behar dira, noski. Baina, bide
batez, iker eta osa ditzagun borbonis-
moarenak, felipismoarenak, aznarismo-
arenak, zapaterismoarenak, garzonis-
moarenak...”.

Anjel Lertxundi idazleari irakurri nion *Berriako Demokrata eta klandestino* artikuluan: Demokraziaren sines-
tuna hasiz gero zentsura eta boterea-
ren gehiegikeriak salatzen, bururatuz
gero kondenatzea legeek unean uneko
interesei erantzutea, bere egiteko etiko-
ak betetzea, “demokraziaren etsaitzat
hartzen dute. Berak demokrata izaten
segitu nahi du, baina gero eta zaila-
goa zaio. Deseroso dago, beldurra
ere izaten du askotan. Klandestino
sentitzen da. Klandestino demokrata
bat, gero eta demokrazia alienatuago
baten barruan”. Eta Lertxundiri iraku-
rritakoak Javier Cercas idazleari *El País*
Semanaleko *Palos de ciego* artikuluan iraku-
rritakoa ekarri zidan gogora, eta... ■

BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi



DANI BLANCO

Nomada postmodernoei jarriak

I

Kaixo, gazte burges, materialista
nire buruaren ispilu klasista
agur iraultza gorriak!
Kopla hauek dira kontzientzietako,
lehen mundu deitzen dugun honetako
lurrikarei jarriak.

II

Dena da mobila, dena portatila,
sareen sarea, gurpilen gurpila...
Zorabiatuta nago!
Ordulariaren orratzei iheska
gaur beste bat entzun dut hala galdezka:
nire itzala non dago?

III

Bi urtez behin-edo aldatuz langintza,
herria, maitea ta etxeko giltza,
bidaiari eternoak!
Haizeak nondik jo ibili ohi gara,
zentratu ezinik, hona eta hara...
nomada postmodernoak.

IV

Hil ziren ezkontza ta lan egonkorra
orain dena da hain arina, hauskorra.
Hori nahi genuen. Ala?
Baina, hala ere, ez nuen uste nik
Horren estua ta garestia zenik
askatasun pertsonala.

V

Aste hontan daukat seigarren mudantza:
traste, kaja, margo eta mamu dantza!
Ai, gure belaunaldiko
jator itxurako ziber-euskaldunak!
Jaio bezain pronto ikasi dugunak
ezer ez dela betiko.

VI

Bateko fiantza, besteko abala,
etxejabearen hileko jornala...
Hori abildadea!
Monopoli(o) hontan galtzaileak gara
inmobiliaren negozioa da
gure mobildadea!

VII

Beraz, hau da gure etxetxo berria
hau gure taberna, hau gure herria
eta berriro hastera!
Atea ireki, paretak pintatu,
—fitxa bat irentsi ta hogeikontatu—
bizitzera jolastera!

VIII

Hustu tiraderak, bete furgoneta
hustu armairua, bete sei maleta...
hustuaz bete beharra!
nahiz eta amaitu umore txartuta
indarberritzen naiz imajinatuta
Oteizaren irrifarra!

IX

Mahaia zokora, ohea leihora
goiko gauzak behera ta behekoak gora
ahalik eta azkarren!
Nahiz ez den aldatzen barneko itxura,
bihotzaren forma ta arkitektura
muebleak aldatu arren.


X

Nola Alizia mundu magikoan
usain arrotzeko sala klasikoan
ez naiz eroso sentitzen...
etxe bila zortzi asteren ondoren
nahikoa lan badut erotu baino lehen
nire burua aurkitzen.

XI

Non daukat ezkerre? Non daukat eskuina?
Burgese txikiaren patrikako mina
al dut nik ere barnean?
Psikologo batek esaten dit ezetz
etzateko eta egiteko amets
aberatson dibanean.
(ordaintzen diodanean).

DOINUA: Xabier Leterena, Sarasuak “izan zintezkeenari jarriak”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Musika

Jazzaldia Euskal Herriko taldeen begietatik

Hurreratzen ari da Donostiako Heineken Jazzaldia, eta atzeritik etorritako musikariekin batera hemengo taldeak ere ariko dira, lau urtetik hona martxan den tokiko taldeen programari esker. Aukera hori nola bizi duten jakin nahian hautaketa prozesuan dauden bi talderekin izan gara.

UXUA LARRETxea

45. EDIZIOA du aurten Heineken Jazzaldiak. Uztailaren 21etik 25era bitarte beste behin ere jaialdi entzutetsuaren kariatara Gipuzkoa-ko hiriburua jazz musikaz girotuko da, eta, milaka eta milaka jarraitzaileek estilo musikal horretaz gozatu ahal izango dute hirian ekimenari begira prestaturiko guneetan. Atzeritik etorritakoez gain, Euskal Herriko jazz taldeek ere izango dute taula gainean euren musika agertzeko abagunea, tokiko taldeei

R.S. Factor taldeko kide bat behean. Beste hainbat euskal talderekin batera, 2007an sortutako banda hau aurtengo Jazzaldian jotzeko lehian ari da.

bideraturiko programari esker. Zehazki hemengo hamar jazz talde izango dira aurtengo edizioan; hain justu, gaur gaurkoz martxan den hautaketa prozesuan aukeratuak izango direnak.

Duela lau urte abiatu zuten Euskal Herriko jazz taldeen artean hautaketa prozesu bat aurrera eramateko ekimena eta erantzun oso baikorra izan duela baieztatu dute Jazzaldiren Batzorde Antolatzailetik. Taldeek igorri-

G. PAREDES



tako material musikala aintzat hartuta, hama-bosti eman diote Donostiako zenbait klube-tan jotzeko aukera (Jade Caravan, Gabacho Connection, Los Wachisneis, Lakuntza Brothers, Sagi Quartet, Asier, Ajavares, Dynamic Trio, Stay Blues, The Hot Wok, 4Roots, R.S. Factor, Gregario De Luxe, Frida Pipol eta Broken Brothers Brass Brand). Musikaren kalitatea eta Jazzaldiaren programazio estiloarekiko egokitasuna kontuan hartzen dute lehen aukeraketa hori egiterakoan. Talde horiek otsailean hasi eta maiatzera bitarte doako emanaldiak ematen ari dira Forum FNACen, Altxerrin, eta Victoria Eugenia Antzokiko Klubean. Emanaldi horietan

"Gu bezalako taldeei ilusioa ematen digu, eta hain justu ilusioarengatik, erronka txikietatik mugitzen gara; horrek bultzatzen gaitu musikan jarraitzea"

**IÑAKI YAGUE
FRIDA PIPOLEKO BAXU JOTZAILEA**



FRIDA PIPOLEK UTZILA

entzun eta ikusitakoaren arabera Jazzaldiaren Batzorde Antolatzaileak erabakiko du zein izango diren aurtien oholtza gainean izango diren Euskal Herriko hamar taldeak.

Aukeraketa prozesuan daude R.S. Factor eta Frida Pipol. Jazz sailaren barruan goi mailako lizentziatuak dira lehen taldeko kideak, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian. Erreterria inguruko Frida Pipol, berriz, entsegu lokaleko fruitua da. Jazzaldiaren inguruko iritzi bera ez izan arren, bata nola besteak badute berdintzen dituen ezaugarriak: euren musika jendaurrean agertzeko gogoia.

Publiko handi batengana iristeko aukera

Nabardurak nabardura bi taldeek bat egiten dute Donostiako jazz jaialdia eurentzat aukera ona dela ziurtatzerakoan, bereziki entzule askoren aurrean jotzeko parada ematen dielako. Frida Pipoleko baxu jotzaile Iñaki Yaguek baieztatu duenez, Jazzaldian jotzea musikari gisara duten erronken artean dago. "Kide guztiak izan gara betidanik Jazzaldiaren jarraitzaileak eta bertan parte hartzea ametsa

Jazzaldiari esker euren antzeko interesak dituzten musikariak ezagutzeko parada dutela uste dute Frida Pipol taldeko kideek.

da guretzat". Euren inguruko taldeak tankera horretako ekimenetan jotzen ikusteak animatu zituen izena ematera. 2002an ekin zioten proiektu musikari Olatz Otxoa Otxk, Iñaki Yaguek, Txema Aragonesek, Iker Ramosek, Phillipe Enoch Wallacek eta Beñat Kortajarenak, eta, harrezkeroztik funky, blues eta jazz eremuak jorratzen aritu dira. "Guretzat

ohore handia da aukeraketa prozesuan egotea, gainontzeko taldeekin alderatuz afizionatuak baikara". Kontziente dira Jazzaldiko tokiko taldeen programari esker aukera paregabea dutela: "Gu bezalako taldeei ilusioa ematen digu, eta hain justu ilusioarengatik, erronka txikietatik mugitzen gara; horrek bultzatzen gaitu musikan jarraitzea". Proiektu musikal bat eskuartean izandakoan ahalik eta jende gehienarengana iristea dela helburua eta hori tankera horretako jaialdiek bermatzen dutela baieztatu du. "Arreta handiagoa jartzen dute taldean eta bestelako jaialdi, festa edo ekimen musikaletarako gehiago hartzen zaituzte aintzat. Eta hori beti ondo dator gu bezalako talde amateur batentzat". Hori gutxi ez eta jaialdiak euren interes eta kezka berak dituzten musikariak ezagutzeko parada ere ematen diela dio Yaguek.

R.S. Factor taldea 2007. urtean sortu zuten Ruben Salvador, Julen Izarra, Alejandro Satxa Soriazu, Javier Mayor eta Hasier Oleaga musikariek. Aldaera ezberdinetako jazz-a egiten dute, bat-batekotasunean oinarriturik. Swing, latin, ballad, blues, jazz garaikidea, reggae eta funk estiloak lantzen dituzte, besteak beste. Proiektu musikal horretan ez ezik, musikari ospetsuekin ere egiten dute lan, hala nola, Gontzal Mendibilekin, Ruper Ordorikarekin, Juan Carlos Perezekin edo Iñaki Salvadorrekin. Ruben Salvador tronpeta jotzaileak onartzen du Jazzaldia hemengo taldeentzat ezagutzera emateko trapolin nahiko garrantzitsua dela, baina antolatzaileak horretaz baliatzen direla pentsatzen du, eta, bertako eta kanpoko taldeak ez dituztela berdin baloratzen: "Jazzaldiaren programaren barruan ordutegi aldetik dauden hutsu-neak betetzeko erabiltzen gaituzte, eta gainera, zuzeneko horiek oso gaizki ordainduta daude". Horrez gain, ez du uste zuzenekoaren trukean euren maila antzekoa duten atzerriko taldeek ordainsari bera jasotzen dutenik. Hori horrela dela jakin arren, jaialdian parte hartzea erabaki dute, musikari gisa eurentzat jende askoren aurrean jotzea garrantzitsua delako eta curriculum osatua goa izaten laguntzen dielako.

Bestelako ikuspegia dauka Yaguek, tokiko taldeen kontzertuak nahiko goiz izanik ere, kurioso eta ibiltari asko erakartzen dituztela, eta horrenbestez, harrera oso ona dutela pentsatzen baitu. “Iaz, 1.500 pertsona joan ziren The Billie Jeansen kontzertua ikustera eta gure maila musikal antzekoa duen taldea da”. Gainera, ordu guztietan jendea mugitzea lortzen dutela gehitu du.

Urte osoan aukera eskasia

R.S. Factor-ekoaren iritziz, tokiko taldeen programaren bidez hemengo taldeengatik zerbait egiten ari direla erakutsi nahi dute. “Jendaurrean jotzeko aukera gehiago eskainita edo urte osoan jotzeko programazioa osatuta, orduan bai sostengatuko gintuzkete benetan”. Izan ere, uztailera jaialdiaren harira jazz musika alde guztietan entzuten da, baina urteko gainontzeko egunetan jo nahi badute bereak eta bi egin behar dituztela gogorarazi du. Horren aurrean Salvadorren proposamena da hilean bitan klubetan batean programatzea; hau da, orain tokiko taldeen hautaketa dela eta egiten ari diren hori urte osoan ere egitea, baina baldintza hobeetan. “Ikus eta balora gaitzaten behar dugu”. Bat dator horrekin Yague bera ere, eta jazzaren inguruan jende gehiago mugitzea gustatuko litzaiokeela aitortu du: “Euskal Herriko jaialdietan rock, punk eta pop-rock estilo musikalak entzuten dira gehien eta apenas funka eta soula. Edonola ere, jendea horren bila joan ez arren, aurkitzen duenean txundituta geratzen da”. Halaber, jaialdi kopuru egokiak antolatzen dira haren irudiko; hori bai, estilo koloretsuen aldeko jarrera sendo bat faltan botatzen du. Era berean, apustu ausartagoak eskatzen ditu Jazzaldiari begira ere, arriskatzeari nahiko luke. Esaterako, hondartzako eszenatokira ezagunak ez diren baina oholtza

“Jazzaldiaren programaren barruan ordutegi aldetik dauden hutsuneak betetzeko erabiltzen gaituzte, eta gainera, zuzeneko horiek oso gaizki ordainduak daude”

**RUBEN SALVADOR
R.S. FACTOR-EKO TRONPETA JOTZAILEA**

asko jantziko luketen taldeak ekarriz. Horrek, besteak beste, ikuslegoaren belarria zorrozteko balioko luke, haren irudiko.

Donostiako Jazzaldiarekin izugarri ugartzen baita musika horrekiko zaletasuna, baina gainontzean, ikuslegoa ez da horren jendetsua izaten. “Ekintza sozial bilakatu da; Donostian egun horietan mundu guztia ateratzen da jazz entzuterara, ulertu edo ez”, gaineratu du Salvadorrek. Nolanahi ere, alde baikorrik ere baduela nabarmendu du jende bilkura handia sortzen delako.

Perspektiba orokorrago batetik begiratu jazz hazkuntza dagoen musika da haren iritziz, bai entzuten duen jende gehiago dagoelako, bai aditu kopurua hazi egin delako.

Donostian, konkretuki, Musikeneren bitartez harrobi esanguratsua sortu da; jotzen ari den jende multzoa nabarmena da, baita ikusle moduan kontzertuetara joaten dena eta jazz babesten duena ere.

Bi musikariak gogotsu begiratzen diote aurtengo Jazzaldiari, eta parte hartzeko itxaropena badutela aitortu dute. Joera berrietatik abiatuz abesti freskoak taularatu nahi ditu R.S. Factor taldeak, estandarra zokoratuz. Taldekide guztien parte-hartzea eta euren arteko elkarrekintza handia ere eskainiko ditu.

Frida Pipoleko kideek, beren aldetik, kolore askoko apustu musikal proposatzen dute, ingenuoa eta baikorra. “Estilo ezberdinak uztartzen ditugu zuzenekoetan, festa dantza-garria sortuz”. Izan ere, euren musika ikuskerak kutsakorra da eta zuzenekoetan jendeak parte har dezan lortzen dute.

Proposamenak hor daude, orain uztailera jazzaren izen handiekin batera oholtza Euskal Herriko zein talde izango diren jakitea besterik ez da geratzen. ■

ZUMALABE HOTELA





Portuko bidea, 2 · Mutriku (Gipuzkoa) · Tel. 943 60 46 17 · www.hotelzumalabe.com

Literatura

Hemendik aurrera, Euskadi Literatura Lehiaketa

Zaratarik gabe pasa da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak apirilaren 23an egindako jakinarazpena. Euskadi Literatura Sariak aurrerantzean nola erabakiko diren zehaztu dute, eta aldaketak nabarmenak dira. Ziklo bat itxi ote? Bukatu ote da sari horien kariaz azken urteotan izandako polemika? Ala botikak hilko du gripe batekin ospitaleratu duten gaixoa?

GORKA BEREZIARTUA

“AURTENGO EDIZIOTIK aurrera, beharrezkoa izango da modalitate bakoitzerako hautagaiak aurkeztea”. Esaldiak ez du beste munduko ezer ematen, baina bada zia boga, Euskadi Sarien azken urteotako gorabeherak kontuan hartuta. Orain dela urte batzuk, literatur saria izanda ere finalistari, golardoa eskuratu ahal izateko, dokumentu bat sinatzeko eskatzen zitzaion. Eta 2003an Koldo Izagirrek ez du sinatuko. *Berria* egunkarian urte hartako urriaren 4an Juan Luis Zabalaarekin izango duen solasaldian azalduko du ukoaren zioa: “Horrelako sarietan liburua bada edo ez da, ezin zaio egileari edo itzultzaileari inolako baldintzarik ezarri. Bestela Saria hitza kendu eta Lehiaketa izena eman diezaiozela. Lehiaketa da azken finean. Zuk ez duzu zeure burua aurkezten, baina gero baldintza batzuk onartu behar dituzu. Absurdua da”.

Urtebete beranduago, Jon Alonsok eta Xabier Montoiak ere ez dute Jaurlaritzako Kultura Sailetik igorritako dokumentua izenpetuko. Eta finalisten zerrendatik kanpo utziko dituzte biak. 2005ean aldatuko da araua. Ez da gehiago dokumenturik sinatu behar. Baina badira arazo gehiago. Eta 2007an eltzea irakiten jartzeraino berotuko da: Jon Alonsok ARGIAren Euskal Kulturaren Urtekarian *Euskadi Sariak* artikulua publikatuko du eta horrek akuilatuta, eztabaida sektore osora zabalduko da. Otsailean hainbat idazlek *Utikan* manifestuarekin bat egingo dute eta sarietan euren lanak kontuan ez hartzeko eskatuko, arrazoi ugari tarteko

(www.utikan.com helbidean dago manifestu osoa eta sinatzaileak).

Geroztik giroa nahasi samar: Kultura Sailak *Utikan*en sinatzaileen lanak kontuan hartu ditu urtez urte, eta aldiro adierazi behar izan

dute izendatutako idazleek ez dutela parte hartu nahi. Urteotan manifestuak ez du lortu sarien kontrako jarrera orokortzea, baina haien legitimitatea auzitan jarri du gutxienez: denek ez dute parte hartzen, beraz ezin esan euskal literatura osoaren adierazgarri direnik.

Korapiloak ez zirudien erraz askatzekoa. Han-hemenka bazebiltzan zurrumurruak, esaten zen Blanca Urgellek gidatutako Kultura Sail berriak irizpideak aldatzeko asmoa zuela. Eta

aldatu ditu: funtsean, parte-hartzea idazle bakoitzaren esku uzten dute orain Euskadi Sariak, eta beraz, sari baten mekanismoa baino, literatur lehiaketa batena bihurtzen da –Izagirrek 2003an esandakoaren ildoan–. Baldintzak onartzen dituen sarituko dute, baina ez dago euskal literaturaren uzta osotik ale batzuk nabarmentzeko bokaziorik. Irtenbide partziala da, eta emaitza idazleen parte hartze borondatearen arabera izango da.

Irakurleen eta kazetarien ikuspuntutik, ordea, hutsune bat sortzen du, lehen Euskadi Sariak hala moduz betetzen zuten espazioa desokupatu baita: sari nazional batek edozein literatur sistematan betetzen duen zeregina, kanona ezartzea. Beharbada, ez dagokio erakunde autonomiko bati horrelako saria ematea. Baina nolabait, norbaitek, noizbait, bete beharko du hutsunea. ■



Xabier Lete, Blanca Urgell eta Patxi Lopez, Euskadi Sarien azken ekitaldian. Datorren urterako asko aldatu dira sarion irizpideak.

Liburuak

KRITIKA

Heriotzarako jantzita.
Donna Leon (Itzulpena: Jesus Lasa).
Erein.
440 orrialde. 23,20 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Beste gizonezkoak maite dituzten gizon ondratuak

EZ DUT BEST SELLERRIK irakurtzeko ohiturarik, ezta nobela beltza irakurtzeko usadiorik ere, eta hala eta guztiz ere, Donna Leonen *Heriotzarako jantzita* nobela irakurri dut, Ereinek Uzta Gorrian argitaratua eta Jesus Mari Lasak itzulia, txukun aski itzulia gainera.

Genero hau transgresiorako eta gizarte arauak edonondik apurtzeko aproposa dela kontuan izanik, hasi nintzen ohan-tzean loaren arrimuan liburua irakurtzen. Potoloa da gero, baina aise irakurtzen den horietakoa. Sargori dagonean sagardo gozoa bezalakoa, freskoa, bustia eta txinpartak berekin dituen.

Highsmith-en Ripley detektibea eta Bordaren Amaia Ezpeldoi detektibe eme eta lesbiana izan ditut gogoan Brunetti detektibea trabesti aurpegi desitxuratua hilda aurkitu eta heriotzaren nondik norakoetan ibili denean.

Ez prezisamente Brunetti transgresore agertzen zaigulako edota heteronormatibitatea zalantzan jartzeko asmoz dato-rrerako, gaiagatik baizik: gorputzen komertzioa, prostituzioa eta trabestismoak pertsonaia horien inguruan gogoratzera ninderamalako. Sexuak benetako tiraniak eta abusuak jasaten ditu eta jazarpen hauen gainean sostengatzen dira gobernuak, estatuak nahiz identitateak. Baina horren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, Beatriz Espejok kaleratu berri duen *Manifiesto Puta* irakurri beharko zenuke. Izan ere, eskuartean dugun liburuan benetako gizonak azaltzen dira. Poliziak. Eta beste gizonezkoak maite dituzten gizon ondratuak, baina lotsaren lotsaz trabesti batekin larrutan ordainduz aritzea maiteago dutenak, euren homosexualitatea gizonki onartu baino.

Ustelkeria eta itxurakeria izango dira eleberri honetan Brunetti detektibeak desmaskaratu beharko dituenak, Heriotzarako jantzita hildako trabestia abiapuntutzat hartuta. Heriotzarako ez ezik, bizitzarako hainbat maskara janzten ditugula erakutsiko digu detektibeak. Hori dena eta gehiago dago Donna Leonen nobela honetan.

Aste santuan ez baduzue irakurri udan irakurtzeko primerakoa da. Erraza, buruhausterik ez duena, sudoku baten antzera detektibearekin batera hiltzailearen bila jarriko zaituena eta hondartzara, mendira, nonahi eraman daitekeena. ■

Arritxu gaztearen abentura lamiekin

Itziar Madinak idatzi du *Arritxu eta Mago zurien Anaidia* liburua. Txalaparta argitale-txean eman du argitara Gatuzainekin batera, eta Leire Urbeltzen ilustrazio ikusgarriek laguntzen diote Madinaren testuari. Liburuan zera kontatzen da: Arritxu gazteak Iturzulo-gaineko lamiekin duen abentura. Lamiek Arri-



Arritxu eta Mago zurien Anaidia.
Itziar Madina.
Txalaparta/Gatuzain.
125 orrialde.
12 euro.

txu behar dute. Oihaneko Mago Zuriak bahitu egin du lamia guztietan ederrena, Dalan, eta berarekin ezkontzera behartu nahi du. Eta Dalanek ezkondu nahi ez. Horregatik, Mago Zuriak hiltzera kondenatu du. Eta lamien batzarrak uste du Arritxuren esku dagoela Dalan salbatzeko aukera bakarra. Lortuko ote du gazte ilegorriak lamia salbatzea? ■

'Idatz & Mintz' aldizkariaren 48. zenbakia

Literatur kontuak jorratu ohi ditu Labayru ikastegiak argitaratzen duen *Idatz & Mintz* aldizkariak. Eta, ezin bestela izan, horrelako gaiak dakartza oraingoan ere, 48. zenbakian. Besteak beste, honakoen testuak aurkituko ditu irakurleak aldizkaria zabaldua: Miren Agur Meabe, Joseba Aurkenerena, Luigi Anselmi, Amaia Iturbide, Miren Ibarluzea... Gaiak ere anitzak dira. Iñaki Sarriugartek Herta Müller Nobel saridunari buruz artikulu mamitsua plazaratu du; Sebastian Gartzia Trujillok, berriz, Nikolas Ormaetxea *Orixeren* mistizismoaz izkiriatu du; eta Jabier Kaltzakortak "Etxahunen *Ofizialenak* khantorea-ren bost ahapaldi gehiago" izeneko artikulua ekarri du. ■



Idatz & Mintz 48.
Batzuen artean.
Labayru.
51 orrialde.
5,90 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Y el kaos es la partitura en la que está escrita la realidad.

J.A.N.

JAN/DDT.

Iraupena: 13'27".

10 euro.

Eskola zaharreko errezeta, preskribitu ez duten gaitzentzat

ALONSOTEGIN (Bizkaia) entseatzen duen talde honek urte asko darama kontzertuak egiten eta jendeari pentsarazten hardcore kontzientziatua murgilduta. Honako lan hau Bilboko DDTrekin batera argitaratu dute eta taldekideek hobe ezagutzen duten estiloko bederatzikanta aurkituko dituzue. Gaztelaniaz abestuta, funtsean eskola zaharreko hardcorea, abiadura azkarrekoa, egiten dute, tarteka emo edo post-hardcorearen ñabardurak zein erdibideko erritmo-

ak ere batzen badituzte ere. Minutu eta erdira heltzen ez diren kantuak dira, ondo pentsatutako amorruz josiak eta berorri Jodida Actitud Normal izena eman zion HHH taldeak bezala harira doaz, bihurtzerik gabe. Tartean, gainera, Euskal Herrian hain maitatua den Spermbirds talde alemaniarra eta Sub-Pop diskoetxeko ardi beltz Seaweed bertsioneatu dituzte.

www.myspace.com/jodidaactitudnormal

Tito - J.A.N.

«Europako hardcore irekia aldarrikatu dugu beti, AEBetako hardcore uniformearen aldean»

Dagoeneko taldeak 16 urte bete ditu. Nola bizi duzue hori?

Gure asmoa ez da inori ezer erakustea, ezta helburu zehatz batzuk betetzea. Baina elkarrekin ondo pasatzen dugun lau lagun gara eta, jakina, denboraren kabuz teknikoki eta hitzak idazten apur bat hobetu dugu. Bitxia zera da: gure sasoian zegoen jende gehiena dagoeneko ez dagoela kontzertuak antolatzen, ez da kontzertuetara joaten... Ikusle asko gazteak dira, bere sasoian hardcorea bizi izan ez zutenak, eta horientzat jotzea erronka da. Aspertuko bagina, utziko genuke, baina oraindik badugu zer esan.

Hitzei garrantzia handia ematen diezue...

Bai, ahalegintzen gara hitz gutxitan gauzak azaltzen: esaldi gutxi, neurri batean metaforikoak direnak eta ohiko hitzetaz aldentzen direnak.



Buruhauste handirik gabe, baina pentsarazi dezatela.

“Sistema hiltzorian dago neurrigabeko handinahiaren ondorioz”.

Bai. Kapitalismoak, handinahiaren muturrean, bere burua jateari ekin dio; baina berriro berpizten ari da. Gizarteak ezin izan du edo ez du nahi izan egoera hori baliatu kapitalismoa suntsitzeko, eta ez da inoiz

honako hau baino aukera hoberik izan. Klase ertaina porrot egin duen irabazlea bihurtu da.

“Men egitea” da gure akats handiena?

Hezkuntzarekin zuzenki lotuta dago. Guztiok gara inkonformistak, baina benetan zerbait esan behar dugun unean isilik gelditzen gara. Gakoa da gauzei sustraiaetatik heltzea.

Diskoan Spermbirds eta Seaweed taldeen bertsioak egin dituzue. Zergatik horiek?

Seaweed aspaldi ezagutu genuen, ia kasualitatez. Grungearen baitan sortu zen arren, indarra eta melodia batzeko modu berezia zuen eta asko gustatu zaigu beti. Bide batez, norbaiti ezagutarazi nahiko genioke. Eta Spermbirds da European izan den hardcore talde berezienetako bat. Europako hardcore irekia aldarrikatu dugu beti, AEBetako hardcore uniformearen aldean. ■

Ezpalak

JON TORNER

Abian da 'Maimorables' jaialdia

OROTARA 24 kultur ekitaldi eskainiko dituzte Baiona, Angelu eta Bokaleko kale eta aretoetan, ekainaren 4ra bitartean. Maimorables jaialdiaren 10. edizioan dantza eta antzerki emanaldiak, kontzertuak, argazkilaritza ikastaroa eta hip-hop lehiaketa izango dira, besteak beste. Informazio gehiago: www.snbsa.fr.



Bilbora ekarri dute Rubensen 'Deidamiaren bahiketa'

PETER PAUL RUBENS (Siegen, Alemania, 1577 - Anberes, Belgika, 1640) margolari ezagunaren *Deidamiaren bahiketa* (1636) lana ikusgai izango da irailaren 5a arte Bilboko Arte Eder Museoan, "Gonbidatutako Obra" gisa. Horrez gain, koadroaren aurretik artistak egindako zirriborroa ere ekarri dute museora. Rubensek Felipe IV.aren enkarguz egin zuen artelan hori Madrilera bere egoitzan jartzeko eta Argos erregearen alaba Deidamia, Eurito zentauroak bahitzen duen momentua ilustratzen du.

Susana Koska donostiarrak azken 30 urteotako mugimendu feministan oinarritutako *Vindicación* dokumentala egin du. Mugimenduaren arlo ezberdinetan ibilitako emakumeen testigantzak bildu ditu. "Mugimendu feminista izan da gizartea gehien aldatu duen gizarte mugimendua", esan du zuzendariak, "20 urteotan lortutakoa ospatzeko modukoa dela uste dut, lortzeko asko geratzen bada ere".

Irati Jimenez idazle mundakarraren *Nora ez dakizun hori* (Elkar) eleberriri eman diote 111 Akademiako kideek Beterriko Liburua aipamena. Jimenezen lanarekin batera, Aingeru Epaltzaren *Izan bainintzen Nafarroako errege* (Elkar) iritsi zen azken bozketa txandaraino.



Jorge Oteiza artistak egindako 25 obra bildu dituzte Gernikako Euskal Herria Museoa. 1942tik 1987ra bitartean egindako lanak dira, Gernika erreferente sinboliko gisa hartu dutenak. *Jorge Oteizaren Gernika* erakusketa uztailaren 25a arte izango da zabalik.

Montxo Armendariz zinemagile nafarra 'Honoris Causa' doktore izendatu du Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP).

● **Patxi Huarte 'Zaldi Eroa' marrazkilariak Nabarra aldizkarian:** «Nik ez dakit zer duten marrazkiek, beti esaten dut, baina badute karga indartsuago bat. Zuk idatz dezakezu esaldi arrunt batean 'Jesukristo gurutzean biluzik hil zen' eta horrela irakurri duzu Biblian, Itun Berrian. Idatz dezakezu ziur aski Jesukristo biluzik hil zutela, baina Jesukristo gurutzean biluzik marrazten baduzu, eta gainera ilustrazio errealista bat egiten baduzu, bueno, bueno... hori kolpe bat da. Eta berdin Mahomarekin. (...) Kasu honetan ['nobela grafiko' kontzeptuaz ari da] agian ez dute oso ondo asmatu. Eta batzuk mindu dira, e? Orain berriki esan dute euskarazko lehen nobela grafikoa atera dela eta batzuek diote: 'Eta guk zer egiten genuen, bada?'».

● **Luke Uribe-Etxebarria EAJko parlamentariak Deian:** «[Eusko Jaurlaritzak sorturiko Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa (AKEKS) erakundeak]

3,5 milioi euro inbertitu ditu Notro TV enpresan, Madrilgo Vértice 360º ikus-entzunezko taldean dagoena (...) Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak, egoitza erreala Euskadin ez duen enpresa batean inbertitzen? Ez al du Euskadin kokaturiko enpresetan inbertitzeko bete-beharra? Ez al du Euskadiko egitura industrial osoa osatzen duten enpresen abiatzea, garapena eta zabalkuntza bultzatu behar?».

● **Maite Beaumont mezzosopranoak Garan:** «Tradizio koral ikaragarria dago, musika maite duen eta koruetan praktikatzen duen jende ugari dago. Euskal Herrian gertaera harrigarria da hori, eta beste leku batzuetan ez da hori gertatzen (...) Gutako gutxi batzuk erabakia hartu dugu kantuak profesionalki bizitzeko, kontserbatorioan ikasi eta atzerrira joateko. Ageriko buruak gara, baina hemen dagoen lehengaia, harrobia, oso ona da».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Hou, Pitxu, hou!!!

LARRAINEN (Zuberoa) izan ginen Gipuzkoako homonimo behar lukeen Larraulgo koadrila. Maskaradaren azken emanaldia bizi nahi genuen.

Eguerdirako herrira iritsi, eta gazte taldea non harrapatuko atzetik ibili ginen. Partaideak kotxe karabanan burrunbaka zihoazen baserri auzo batetik bestera, gurpilei kirrinka eraginaz eta bozina joaz. Ikusi nahi badituzu, zoaz atzetik. Horixe gustatu zitzaigun, ez dela publikoarentzat –gutxiago turista malenkoniatsu manexentzat– eginiko ikuski-zuna. Eurek eurentzat egiten duten festa baizik. Apustua ere galdu nuen, horrelako denean ikusten ditudan hegoaldetarrek Nafarroaren Eguanean behar zuten –Xabier Azkue, Unai Brea eta Aizpea Leizaola, huts egin didazue–.

Arratsaldea herriko plazan eserita eman genuen, duela dozena bat urte herri berean maskarada ikusten

egon ginen bezalaxe. Oraingoan alkate-alkatesa, zorroztaile, buhame edo dantzari zirenak, orduan neska-mutil kozkorak izango ziren. Eta dozena bat

urte barru, Larrainen berriro maskarada egiten denerako koadrila ziurtatuta dutela ikusi genuen: neska-mutil kozkorak buhame jantzita zebiltzan, Pitxuri lotsagabekeriak erantzunaz...

Kultura bere erroan bizi dutela ikusi genuen, inbidiaz. Maskarada egin zuen koadrila horrek urtebetez helburu berarekin elkarlanean entseatu du, batzuek dantzak, besteek bertsoak, hirugarrenek antzerkia, eta oso maila altua lortuz, gainera.

Plazan arnasten zen herritarren arteko zirika, festa giroa, baina baita ere solemnitatea: gazteak herri osoaren aurrean protagonista egin zituen emanaldiak. Ez dago sentsibilizazio eta marketin kanpaina hoberik hurrengo belaunaldiak maskaradara lotzeko. ■



ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN 2. zikloa

MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea


ESKORITZA

MAIATZAK 8 larunbata - 11:00

areto nagusian

ANA ZAMBRANO

Gaja: Uribe Kostako herriak



Kike Amonarrizen umorea

A black bowler hat, also known as a bowler or a bowler hat, is shown. It has a rounded crown and a narrow brim. The hat is made of a dark material, possibly felt or wool, and features a dark band around the base of the crown. The hat is positioned at an angle, showing its profile.

— Sorry. I am late, three!

	T	A	K	A	
B	E	L	G	I	K
M	U	R	S	N	O
S	B	A	R	I	K
G	O	A	I	T	Z
P	E	S	U	G	E
P	E	S	O	A	N
L	E	I	A	R	O
G	A	I	L	A	T
	T	B	E	R	A
		N	A	N	O
			H	O	R



hh
hik hasi

XI. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 1 eta 2



Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 28a

Jendaurrean hitz egiteko, **Ahotsaren erabilpen egokia**, Euskarazko literatura, **Euskal mitologia eta ipuinak**, Nola erabili testigantzak, **Adimen emozionala**, Psikomotrizitatea, **Orkestra musikaterapeutikoak**, Osasun mentala, **Haurrentzako masajea**, Jolastu eta sortzaileki pentsatu HHn, **Hizkuntzaren jolasa**, Buru-mapak, **Matematika tailerra**, Irakaskuntza 2.0. Wikiak, **Web 2.0. Google**, Bideoa, **Artea eta irudia**, Marrazten ikasi, **Egurra lantzen**, Papera eta kartoia, **Biodantza**, Euskal dantzak LHn, **Europako dantzak**, Cos-Art metodoa, **Perkusioa: panderoa eta batukada**, Yoga saioak irakasleentzat, **Coaching...** eta arratsaldeetako kafe-solasaldiak.

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Teilatu auto-erregulatzaileak

JAKINA DA kolore zuriak eguzki-izpiak islatu eta kolore beltzak xurgatu egiten dituela. Teilatu zuriak izango bagenitu udan aire girotu gutxiago erabiliko genuke, baina neguan berogailua gehiagotan erabili beharko genuke. Eta teilatu beltzak izanez gero, alderantziz.

Ederra litzateke, beraz, neguan kolore beltza izatea teilatuak, eta udan zuria. Ildo horretako ikerketaren berri ez dugu izan orain arte, baina berriki, ikerlari talde estatubatuar batek, janari azkarra egiteko erabiltzen den olioan oinarrituz, udan beroa islatu eta neguan beroa xurgatzen duen materiala lortu dutela iragarri du.

Diotenez, material berriak ez du ia usainik, ez du su hartzen, ez da toxikoa eta edozein teiltutan jar daiteke. Traupen luzekoa da eta, denboraren poderioz dituen propietateak galduko balira, kendu eta geruza berria jarriz teiltua prest legoke berriro. Ikerketa sustatu duen enpresak itxaropena du hiru urte barru hasteko asmakizunaren komertzializazioa.



STATIC.PANORAMIO.COM

Energia eolikoaz kezkak

AEBETAN HAIZEAREN INDARRETIK eratortzen den energia, osoaren %2 baino ez da. Bertako administrazioak 2030erako asko handitu nahi du portzentaje hori, baina MIT ikerketa-zentro ospetsuko ikerlari talde batek kontuz ibili beharra dagoela ohartarazi berri du.

Ron Prinn eta Chien Wang ikerlariak milioika turbina eoliko lehorean zein itsasoan jarriz zer gertatuko litzatekeen jakiteko eredu informatiko konplexua erabili zuten. Horren arabera, lehorrean kokatutako turbina eolikoek batez beste gradu batean handitu dezakete inguruko tenperatura; itsasoan jarritakoek, aldiz, gradu bat gutxitu. Gainera, haizeak ez duenez beti jotzen, eta ez beti indar beraz, horniketa elektrikoa ziurtatzeko gas naturalean oinarritutako zentral termikoak eraiki beharko lirateke. Halere, Prinnek eta Wangek ez dute nahi euren ikerketa energia eolikoaren kontrako argumentutzat hartzea; parke eolikoak eraikitzean kontuan har dadila, besterik ez.



MERCADOGENIA.COM

Montzoi-haizeen historia zuhaitzetan

Montzoi-haizeak Indiako Ozeanotik Asiara sartzen diren haize hezeak dira, eta urtero izugarritzko euriteak uzten dituzte bertan. Baina montzoiaren eragina izugarria da munduko klimatologian bestela ere. Hori dela-eta, ikerlariak aspaldi ari dira haiei buruzko datu historikoak biltzen, eta orain zuhaitzetan topatu dute izugarritzko artxiboa.

<http://ttiki.com/12696> (Frantsesez)

Aurtengo martxoa oso beroa izan da

Euskal Herrian ez dut uste hori esan dezakegunik, baina munduan, aurtengo martxoan 1880. urteaz geroztik neurtutako tenperaturarik handienak izan dira. Eta ez bakarrik lehorean, baita itsasoan ere. Badi-rudi El Niño izeneko gertaera dela horren erantzule nagusia.

<http://ttiki.com/12697> (Frantsesez)

Oliba-olioaren onurak berresten dituen beste ikerketa bat

Oliba-olioak bihotzekoa izateko arriskua gutxitzen duela jakina da. Berriki, Kordobako Unibertsitatean (Espainia) Francisco Perez-Jimenezek egindako ikerketen berri eman da BMC Genomics aldizkarian, eta bertan oliba-olioaren propietate onak baieztatu dira.

<http://ttiki.com/12698> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza^{interaktiboa}

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Nafarroana bitxilorea

EUSKARAK BOTANIKAN TXERTATU DITUEN landare-izenen azkenekoetako bat hau da, nafarroana, *Iberis carnosa* subsp. *nafarroana*. Mediterraneoaren mende- baldeko mendietan bizi den espezie honen barruan Nafarroana abizena Lizarra ondoko Antzinen topatu ziren ale bitxi batzuei eman zitzaion. Margarita Moreno botanikariak 1984an proposatu zuen subespezie gisa, Jakako herbarioan 1972az geroztik jasota dau- den ale batzuk oinarri, eta ez ditu oraindik bedeinka- zio guztiak jaso. Ohikoak baino tentexeagoak izateko joera dute, eta bitxilore izena duen botanikariaren ustez subespezie bat osatzeko adina desberdintasun badu multzo nafar honek. Hiru kilometro koadroko sailean bostehunen bat ale besterik ez dago. Bizilagun dituzte arte, elorri-triska, elorri zuria, estrepa edo txar- raka, ezkaia, xaboi-belarra... Karea nagusi den lurretako koadrila. Nafar koadrila honetaz kanpo Euskal Herri osoan bizi diren beste denak *Iberis carnosa* subsp. *carnosa* edo *Iberis saxatilis* subsp. *saxatilis* dira. Berriz ere Margarita bezalako bitxilorearen bat etorri eta aparteko ezaugarriak dituen beste multzo bitxiren bat topatu eta definitzen ez duen artean... Honek, behinik behin, euskarari tokia eman dio botanikan *nafarroana* hitzarekin. Beste upeleko sagardo dira, adibidez *navarra- rana* edo *navarrensensis* abizena daraman hainbat eta hainbat landareri izena eman dioten botanikariak.



AUSAMENDI ENTZIKLOPEDIA

Antzin herria, Lizarrako merindadean. Hemendik gertu daude, hiru kilometroko koadroko sailean, ezagutzen diren *Iberis carnosa* subsp. *nafarroana*-ren ale guztiak, 500 besterik ez.

Ozpinduaren barrika-gustu bizia izango zuen, bai, *Armeria euscadiensis* izena “c”-z jarri zutenen sagardo- ak, Provenceko Unibertsitateko Botanika Laborategi- ko Pierre Donadille eta Jean Vivant ortheztarra. Azken honek berak “deskubritutako” landareen artean beste euskaldun bat ere badu, baina hari ere zer abizen jarriko eta *vasconensis*, *Euphorbia polygalifolia* subsp. *vasconensis*, alegia.

%20

Intsektuek, polinizazio egokia medio, fruitu ekoiz- pena hobetzen dute. Kafean, adibidez, hobekun- tza hori %20koa omen da.

12.500

Orain arte dakigunaren arabera 12.500 landare espezie behintzat jangarriak dira. Horietatik 200 besterik ez ditugu etxekotu.

10

Zuhaitz heldu batek eragiten duen lurrunketak arnasten dugun airea hezatu eta ontzen du. Lan hori bera egiteko, airea egokitzen duten hamar makina beharko lirakeke.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongari organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarriritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Jenkinsen belarria eta Lezo madarikatua



SAMUEL SCOTT

Ezkerrean, ontzi ingeles baten eta espainiar baten arteko itsas gudua XVIII. mendean. Alboan, Blas Lezo, Jenkinsen Belarriaren Gerrako protagonista pasaitarra.

LONDRES, 1738. Robert Jenkins kortsarioak urte batzuk lehenago Fandiño kapitain espainiarrak moztu zion belarria erakutsi zuen Lord-en Ganberan. XVIII. mendean Espainia eta Ingalaterra munduko itsas potentzia nagusiak ziren; lehena gainbehera zetorren, eta ingelesek Amerikako merkatu oparoak eurentzat nahi zituzten. Robert Walpole-ren gobernuarentzat belarriarena nahikoa aitzakia izan zen espainiarrei gerra deklaratzeko eta, hala, Jenkinsen Belarriaren Gerra hasi zen.

1739ko abenduan, Andrew Vernon almirantea Portobelora iritsi eta erraz hartu zuen hiria mendean. Espainiarrei erasotzeko hurrengo pausoa Cartagena de Indias hartzea zen. Ederki babestutako gotorlekua zen Cartagena: frantsesak eta ingelesak hemezortzi aldiz saiatuak ziren ordurako hiria hartzen, alferrik. Horregatik, ingelesek zorrotz prestatu zuten eraso. Ordura arteko gerra ontzidi handiena bildu zuten Jamai-kan: 186 ontzi, 23.600 gizon eta 3.000 artilleria pieza. Kopuru horiek soilik D egunean Normandian bildutako indarrek gaindituko zituzten, 200 urte geroago. Parean, espainiarrek armadako sei ontzi eta 3.000 gizon baino ez zituzten. Sebastian Eslava erregeordeak laguntza eskaria bidali zuen Habanara, baina abisua ez zen sekula iritsi. Espainiarrek aukera

bakarra zuten: Blas Lezo Olabarrieta (1687-1741), Cartagenako komandante jenerala. Pasaitarrak esperientzia handia zuen itsasoan eta gerran, Frantziako nahiz Espainiako armadetan. Jenkinsi baino gorputz atal gehiago falta zitzaizkion: 30 urte bete baino lehen hanka, beso eta begi bana galduak zituen.

Baina Vernonek ziurtzat jotzen zuen garaipena. Ingalaterrara ontzi bat bidali zuen, oroitzapenezko dominak egiteko enkargurekin. Domina horietan Blas Lezok belau-niko agertu behar zuen, hiriko giltzak eskaintzen zizkiola.

1741eko martxoaren 20an Vernonen ontzidia Cartagenako badian sartu zen, apirilaren 13an hiriaren setioa hasi zen eta lau egun geroago San Felipe gaztelua hartzea baino ez zitzaien geratzen. Lezok sigi-sagan lubakia egiteko agindua eman zuen ingelesak gaztelura irits ez zitezen, eta bi soldadu etsaiengana bidali zituen horiek engainatzeko eta berak nahi zuen tokian biltzeko. Pasaitarren asmoa betez, harresiaren albo batean bildu zirenean, gogor eraso zien eta ingelesek ihes egin zuten. Alde egin baino lehen "God damn you, Lezo!" bota omen zuen Vernonek. Ingelesak ez ziren Cartagenara itzuli, baina Vernonen madarikazioa handik gutxira bete zen: Blas Lezo 1741eko irailean hil zen.

Arrastoak

El Lazarillo de Tormes ez da anonimoa

ESPAINIAKO lehen nobela modernotzat jotzen den liburuaren azalean, izenburuaren ondoan, "anonimo" hitza irakur daiteke. Mercedes Agulló espainiar paleografoak, ordea, egilea Diego Hurtado de Mendoza (1504?-1575) poeta eta diplomazialaria izan zela adierazi berri du bere azken lanean.

Ez da hipotesi hori defendatzen duen lehena, baina Agullók frogak dokumental bat aurkeztu du lehenengoz: Hurtadoren paperen artean El Lazarillo de Tormes-en zuzenketa lanak aipatzen dituen bi lerroko esaldia topatu du. Gainera, paleografoak dio Hurtado de Mendozaren profilak bat egiten duela nobelaren idazleak izango zukeenarekin, abenturak nahiz kulturak garrantzia handia izan baitzuten haren bizitzan.



Josu Erkoreka

«Patxi Lopezen ezaugarri politiko nagusia iruzurra da»

Bermeo, 1960. EA]ko talde parlamentarioaren bozeramailea da Espainiako Kongresuan. Hirugarren legealdia du. Parlamentari Errebelazioa eta Hizlari Onena izendatua. "Ohituta nago baina politikan ez duzu egoera bera bizitzen inoiz, beti daude egoera berriak" esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Iñigo Azkona

Egiguzu, arren, Espainiako Gobernuari buruzko balorazioa politika ekonomikoari dagokionean.

Gobernua noraezean dabil krisi hasieratik bide argirik ikusi ez zuelako, eta krisia bera onartzeko asko atzeratu zelako. Beste erremediorik izan ez zuenean, krisia gauza txikia zela adierazi zuen, gure esparruan ez zuela eraginik izango, oinarri ekonomikoak eta finantzariak ondo errotuta zeudelako.

Zapaterok egoeraren berri bazuen: ezkutatzen saiatu zen edo ez zekien ezer? Dena den, bi jarrerak oso eskasak dira estatu-buru baten aldetik.

Zapaterok bazuen egoeraren berri, Pedro Solbesek [orduko ekonomia ministroa] egunean-egunean argibideak ematen zizkiolako. Solbesen ekonomialari taldea gaitasun handikoa zen, informazio asko zeukana eta ondo interpretatzen zekiena: Solbesek aholku argiak eman zizkion Zapaterori baina honek begiak itxi zituen. Gerora ikusi denez, Zapaterok ez zuen egoera interpretatzen jakin eta bere aholkulari sendoena kaleratu zuen arinkeriaz. Azkenean neurriak hartu ditu, baina neurriak oso kaotikoak izan dira. Era guztietakoak dira eta krisi honek ez du onartzen era guztietako neurriak, dagozkion neurri egoikiak baizik. Zapaterok tekla guztiak jo ditu, baina melodia koherente bat osatzeko ez dira tekla guztiak jo behar, aproposak baizik.

Testuinguru honetan, EA]ren talde parlamentarioak Gobernuaren zerga politika eta BEZen igoera babestu ditu. Euskal Herriko gune subiranistean ez da ulertzen EA]ren jarrera hori.

Guk normalki zerga politikan absentsiora jotzen dugu, geure zerga sistema propioa daukagulako. Aurtengo aurrekontua onartu dugu, baina kontraprestazio sendoekin, argi eta nabarmen. Kontzertu Eko-

nomikoa izan da lorpen nabarmena, ez bakarra. Bere blindajea euskal erakundeen aspalduko eskaria zen. Gure taldeak blindajea planteatzen zuen laugarren aldia zen, eta PPk eta PSOEek beti bat egin zuten ezetza emateko. Oraingoan ordea, gobernua ahul dagoelako, lortu dugu. Lorpen estruktural bat da, legealdi bat justifikatzeko beste.



Patxi Lopez lehendakaria oso gaizki ari dela diozue, baina Madrilén Zapateroren proposamenak onartzen dituzuela esan du EAK, adibidez.

Aurrekontuak babestu ditugu, esan dudan bezala. Hori diotenek begira dezatela ERCK egiten duena, Katalunian beren kideak omen direnak...

(...)

Aurrekontu bat oso-osorik ez duzu inoiz ontzat jotzen. Proiektuak aurreikusten zuen BEZ puntu bitan



"Norbaitek pentsatzen badu oraingo egoera politikoa baliatu daitekeela Euskal Herriaren aitorpena egiteko, adibidez, ezer gutxi daki politikaz".

igoko zela ekainean. Guk ez genion horri baietza emango, aurrekontuarekin batera etorri izan ez balitz. Baina akordioak eskatzen zuen osorik onartzea. Edonola ere, Europako estatu guztien artean, Espainiakoa BEZ baxuenetakoa da.

Estatutaren erreforma tarteko CiU, ERC eta ICVk ez bide dituzte 2011ko aurrekontuak babestuko. EAJren babesa jasoko al dute berriz ere?

Gu printzipioz ez gaude Gobernuari doan ezertan aldeko botoa emateko prest, alderantziz. Azken lege proiektuen jarrera ezkorrenen artean gureak izan dira. Kode Penal proiektu berria eztabaidatu da, eta ezezko botoak gutxi izan dira. Gehienak aldekoak izan dira –CIUrena– edo abstenitu dira –PP eta ERC–. Guk ezezkoa eman dugu. Ikus-entzunezkoen proiektuak CIUren aldeko botoa jaso du, PP abstenitu da eta guk ezezkoa eman dugu. Enpresen blindajeari guk ezezkoa botoa eman diogu eta CIUren aldeko botoarekin atera du. Alegia, balorazio horiek egiten dituztenek ez dute politikaren errealitatea ezagutzen, ezta Kongresuan gertatzen denaren datu errealak ere.

Nola dakusazu Estatutaren erreforma?

Zapateroren ganoragabekeriaren beste isla bat da. Krisi ekonomikoaren politikan nola, halaxe honetan ere. Gai honetan katalanei esan zien Estatuta onartuko zuela komarik ukitu gabe. Gero bere eskura zituen koma guztiak sartu zituen. Orain berak hautatutako Auzitegi Konstituzionalak mozketak sartu dio. Horrek frustrazio ikaragarria eragin du katalanen artean. Ez dut katalanisten aldeko ebazpena espero, sektore kontserbadoreko magistratuak tinko eusten diote PPren ikuspuntu hertsienari, eta progresistatzat joak direnak oso urrun daude katalanistengandik.

PSEk Gernikako Estatutuaren erreforma iragarri zuen Patxi Lopez lehendakariak zenean. Nola ikusten duzu PSE-EE orain?

Zapateroren identitate politikoa ganoragabekotzat jo dut, Patxi Lopezek ezaugarri politiko nagusia

berriz iruzurra da, justu esaten dituen kontrakoak egin baititu. Bere promesa sutuak eta proiektu biribilak zertan geratu dira? Transbertsalitatea aipatu zuen eta gobernu sektario eta frentista osatu du. 2004an Estatutua aldatu behar zela esan zuen, eta Kataluniako eredia hartuz proiektu politiko bat zuela esan ere. Eusko nazionalismoak Jaurilaritzatik lortzeko kapaza ez zena berak lortuko zuela. Gobernuan dago eta PPk eskuak lotuta ari da. Guk marko politikoa aldatu behar dela adierazi diogu, hasteko, gizartearen eskaria nabarmena delako. Orain, defendatu izan duenaren kontra, ez du pausorik eman nahi PPren kontrolpean dagoelako.

Madrilen baina, dirudienek, Zapateroren abal nagusia EAJ da. Zuen beharra dauka, eta kontraprestazioak eskaini diezazkizueke berriz ere, bakerako politika tarteko, adibidez.

Uste horrek ñabardurak behar ditu. PSE eta PP hemen batzen dira, besteak beste, EAJ zokoratzeke eta euskal politikan dugun lekua gutxiarazteke. Espainiako Gobernu ahuldua dagoenez ez dute lortu gu Madrilén zokoratzea. Kontzertu Ekonomikoaren blindajea lortzea horren lekuko da. Alegia, guk krisi ekonomikoaren aurrean jarrera kritikoa dugu eta aldi berean eraikitzailea. Krisiak amildegira eramaten bagaitu, denok ordainduko dugu. Beraz, denon artean ekin behar diogu egoera zailari. Eta horretan dihardugu. Baina jarrera eraikitzaile hau modu ezberdinez hartzen da hemen eta Madrilén.

Hemen nola jokatu nahi du EAJk?

PSEk eta PPk Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoa dutenez, ez gaituzte aintzat hartzen. Gure jarrera berriz, han eta hemen berdina da: euskal autogobernurako eta gure ekonomiaren garapenerako ekimenak bideratzea, anbizioari uko egin gabe oinak lurtean jarrita, biak behar dira politikan. PSOeren jarrera da han eta hemen aldatzen dena. Hori bai, berbarako, norbaitek pentsatzen badu egoera hau baliatu daitekeela Euskal Herriaren aitorpena egiteko, ezer gutxi daki politikaz.

Urkullu eta Zapatero bildu dira berriki. Zapaterok deituta. Guk erantzun-kizunez erantzun diogu EBBko buru Iñigo Urkulluren bitartez. Urkullu harrituta geratu da Zapatero hutsik ikusi duelako. Urkulluk ez daki zertarako deitu dion. Asko hitz egin dute egoera politikoaz, baina presidente batek deitzen dizunean, gutxienez proposamen bat egingo dizula pentsatzen duzu. Urkullu proposamenik gabe etorri da eta berak egindako planteamenduei ez die erantzun.

EAJ ere Batasunarekin bildu da.

Bilera hau ere eurek eskatuta egin dugu. Entzun diegu eta zain gaude.

"Kontzertu Ekonomikoaren blindajea lorpen estrukturala da, legealdi bat justifikatzeko beste"

Ondoren ezker abertzaleak Iruñean adierazpen berri bat egin du. Zer balorazio egin duzu horretaz?

Urratsa da, ezin daiteke hori ukatu. Baina aurreko urteetan ikusi ditugunak ikusi ondoren, argi dago ez dela nahikoa. Adierazpen argiak behar dira; indarkeria inolako zalantza barik arbuiatzen dutenak. Eta oraindik ez dugu horrelakorik entzun.

(...)

Ezker abertzaleak ibilbide bat gauzatzeko borondatea adierazi du. Baina ETak dioena funtsezkoa da. ETak ez du aspaldion adierazpen

askorik egin, baina bere estrategiari buruzko adierazpenetan ez ditu berrikuntzak azaldu. Aitzitik, orain arte bezala bere buruari zeregin estrategiko bat ematen dio. Beraz, ETak ez badio uko egiten bere jardun armatuari galdera da: ezker abertzalea kapaz izango al da ETarengandik aldentzeko?

Alderdien Legea aldatzeko pausuk eman ditu Zapateroren gobernuak. Nola interpretatu duzu legearen erreforma, eta aldi berean bake prozesu berri baten aukeraren zurrumurruak?

2002 urtean Alderdi Politikoen Legea onartu zenean PSOE, ezker abertzale eta ETaren arteko elkarriketak bazeudela jakin genuen gerora. Esperientziak erakusten digunez gauza batek ez du bestea kentzen. Hau da, kanpora begira gauza batzuk egiten dira, baina gero mahai azpitik beste batzuk.

Erreforma, antza, legea gogortzekoa da. Zer azalpen ematen diozu horri?

Egitasmoa Mayor Orejaren adierazpenen hiru egunetara azaldu zuten Gobernuak. Ez da kasualitatea. Madrilen ez dira inoiz euskal politikari buruzko kasualitateak izaten. Nola lotu Zapateroren asmoak eta Orejaren adierazpenak? Madrilgo Gobernuak erantzun nahi izan dio Mayor Orejari: "Ez, ez, ez. Gu neurriak hartzen ari gara, eta horren lekuko Alderdiaren Legearen aldaketa eta bermea da". Alegia, Gobernuaren eta ETaren arteko harremana gezurtatu nahi izan dute, baina ez dute lortu. Alde batetik, arrazoia eman diote Mayor

Orejaren sakoneko planteamenduari. Bestetik, PSOEek badaki horrelako neurri juridiko batek ez duela oztopatzen, demagun, egiten ari direna egiten jarraitzea. Iragan berrian ere horrela gertatu da. 2006ko ETaren su-etenean gertatu zen bezala. Neurri legal hauek ez dira oztopo bake prozesu bat abiatzeko.

Bake prozesua abiatzeko unean al gaude orduan?

Bake prozesuak daudenean daude, eta ez dute une fundatzailerik behar. Prozesu bat ez da ematen une zehatz batean. Esaten den arabera, badirudi, "badirudi" diot,

"ETak ez badio uko egiten bere jardun armatuari, ezker abertzalea kapaz izango al da ETarengandik aldentzeko?"

egon badagoela, bidea urratzen ari dela. Politikan eguneroko errealtatean gertatzen denaren eta esaten denaren artean alde logikoa dagoela kontuan hartu behar da. Bake prozesua benetan baldin badago, azalduko da eta txalotuko dugu. Baina utz diezaiogun eragile bakoitzari egin dezakeena egiten, ez gaitezen prezipitatu, ez gaitezen elkar makilatu eta prozesua hasi aurretik beste frustrazio une batera iritsi. ■

argia.com


Elkarrizketaren bertsio luzea.

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.siaazgetaria.com • Tel.: 943 140 143



bilera gela



Udaltop 2010

Nerabeak zirikatzen euskara erabil dezaten

Udaletako euskara zerbitzuen II. topaketak apirilaren 21 eta 22an egin ziren. Ehun lagun inguru bildu ziren Lasarte-Orian, erdiak euskara teknikariak. Aurtengo gaia ondokoa: Nola eragin udaletatik nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabil dezaten?

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Lander Arbelaiz



Ezkerrean, Jon Aizpurua HPSko Ikerketa Zerbitzuko kidea, eta eskuinean, Pello Jauregi HUHEZiko irakaslea.

NERABEAK ETA EUSKARA ardatz hartuta, ertz asko ukitu ziren bi eguneko jardunaldietan. Euskarazko kontsumo masiboaz jardun zuten, Alberto Irazu *Gazteazulo* aldizkariaren esperientziak aritu zen eta HPSko ordezkariak sare sozialei buruzko ikerketa baten berri eman zuen. Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera gazteengan zein faktorek eragiten duten azaldu zuen. Artikulu honetan bi hitzaldiren kontakizuna egingo dugu, bate-tik, Pello Jauregi HUHEZiko irakaslea. Ekialdeko filosofiatik hartutako yin eta yang kontzeptuak hizkuntzara nola moldatu dituen, eta bestetik, sare sozialez HPSko Jon Aizpurua kontatutakoa.

Pello Jauregiren yin-yangak eta hizkuntzak

Euskararen erabilera aztertzeke, eta gero esku hartzeke, sistemak, alegia taldeak hartu behar dira kontuan. Taldeekin egin behar da lan, horietan sortzen dira barne tentsioak. Talde horietan biltzen dira egonkortasuna eta aldaketa, edo beste era batera esanda, ordena eta kaosa. Oreka ari garenean, taldean finkatuta dauden hizkuntza harremanez ari gara, gauzak automatikoki ateratzen dira eta taldeko kideek ez dute energia asko xahutu behar. Ordenak kaosa du orde inguruan, aldaketa etengabea. Esate baterako, bi ari gara euskaraz hitz egiten eta hirugarre-

na dator gaztelaniaz ari dela, edo Lasarten gaztelaniaz ari gara eta Kubara joan eta euskaraz aritu gara. Desoreka batzuk txikiak dira, sistema arriskuan jartzen ez dutenak. Sistemaren joera orekara itzultzea da, adibidez, gaztelaniaz egin duen hirugarren pertsona hori badoanean, beste biek euskaraz segitzen dute, oreka itzuli da. Alabaina, desoreka handiegia denean, beste oreka bat bilatuko da, lehenera ezin baikara itzuli. Elebiduna erraz egokitzen da bigarren oreka horretara, elebakarrak ezin du. Kontua da elebiduna dela beti egokitzen dena, alegia euskararen orekatik gaztelaniaren orekara igarotzen dena.

Gure oreka babestu

Taldearen oreka ez da nahikoa. Taldeak egin dezake euskaraz baina ingurua dauka. Gerta liteke oreka batek beste orekarekin bat egitea, alegia, taldea euskaraz ari da —bi lagun izan daitezke— eta testuingurua ere euskalduna da. Esan dezagun, kasu horretan, inguruak baimentzen duela euskararako erabiltzeko ohiturarekin jarraitzea. Baina gerta liteke lehenengo oreka hori inguruak desorekatzea. Batetik, taldea euskaraz ari bada oreka hori babestea interesatzen zaigu, eta bestetik, ingurua erdaraz ari bada asmatu behar dugu interesatzen ez zaigun oreka hori nola desorekatu.

Hautemateak eta ekintzak

Bien koherentzia bilatuko dugu. Hona adibidea: oso euskalduna sentitzen naiz, euskara maite dut... (nola hautematen dudana euskara), baina ez dut euskaraz egiten (ekintza). Kontraesanak handiak dira eta oreka berreskuratzeko bi modu egon daitezke, bata, hautemate eremua egokitzea, alegia, diskurtso autokonplazienteak garatzea, “euskara bai, baina orain ezin dut...”, eta bestea jokaera aldatzea, euskara gehiago erabiltzen hastea adibidez.

Alderantzizkoa ere gerta daiteke, euskararekiko hautemate eskasa duen bati, adibidez lantokian, eskatzen zaio euskara erabiltzea. Langileak bi aukera ditu: edo lantokia uzten du edo hautematea aldatzen du.

Heldu arrunta eta berezia

Pello Jauregik bi tentsiogune aipatu zituen. Batetik, nerabeak orain txer arte haur izan dira eta orain heldu izan nahi dute. Helduak dituzte eredu, hizkuntza ere bai. Bestetik, helduen munduan bilatu nahi dute tokia, baina beraien tokia ere nahi dute eta helduen kontra

Gazte sare sozialak

Nerabeekin zuzenean lotuta ez bada ere, sare sozialez ikerketa burutu zuen duela gutxi arte Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinazio Zuzendaria izan den Igor Calzadak. Haren faltan, Jon Aizpurua HPSko Ikerketa Zerbitzuko kideak aurkeztu zuen sare sozialez ia bukatuta duten ikerketa.

Twitter, Facebook eta Tuentiko erabiltzaileak aztertu dituzte sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeak eta behaketak eginda. Lehenengo sarearen erabiltzaileak teknofiloak dira, bigarrenarenak era guztietakoak eta hirugarrenarenak 14 eta 25 urte artekoak. Jon Aizpurua azpimarratu zuen nola euskaldunaren erradiografia aldatzen ari den, orain elebidun askoren lehen hizkuntza gaztelania da, giro erdaldunean bizi da... Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago honelako egoerak, beraz, mundu

errealean ez daukana mundu birtualean jaso dezake.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, ez dago alde handiegirik mundu errealean eta birtualean artean. Gehiengoak —taldea eleantza da— darabilen hizkuntzak irabazten du, gaztelaniak. Euskaldunak bestelako azpitalderen bat identifikatzen badu beste hizkuntzaren bat erabiltzen du, edo ingelesa edo euskara. Kalean gaztelania erabiltzen duenak sarean ere hala egiten du, eta kalean euskaltzaletzat dituen kide solteekin euskaraz egiten duenak sarean ere bai.

Euskara zertarako darabilte erabiltzaileak? Bada, mezu laburrak bidaltzeko, zoriontzeko, abertzaletasunaz hitz egiteko, euskarazko ekitaldien eta herriko jaien berri emateko. Euskal hiztunak euskara eta gaztelania nahastuta erabiltzen ditu, baina gaztelaniaz bizi denak ez darabil euskararik.

matxinatzen dira. Hizkuntzari dagokionez, eskola eta familia euskararentzat arnaguneak dira toki askotan, eta hain justu, nerabeek gune askeagoak bilatzen dituzte. Beraz, erabilera bultzatzeko esku hartzea konplikatu egiten da, esku hartzea autoritario samarra baldin bada errezeloa hartzen dute eta ez dute gustuko.

Jauregik nerabeentzako proposamena luzatu zuen; 15-16 urtekoek 12-13 urtekoekin euskara bultzatzeko proiektuak garatzea. 15-16 urtekoek heldu izateko duten grina baliatuz, gazteen ardura hartuko lukete. Pentsatzekoa da 12-13 urtekoek zaharragoak dituztela eredu, baita hizkuntza ere.

Galdere-erantzunetan, partaide batek kalanbrazoaren transmisioa aipatu zuen: gurasoek seme-alabei euskara transmititzen diete, eurek erabili gabe. Gaztetxean gertatutakoa kontatu zuen: gazteek hainbat ekintza antolatuta zituzten, tartean haurrentzakoak. Ume batzuk joan eta esan zieten: “¿Cuándo es la chocolatada?” eta gazteek: “Zuek ez dakizue euskaraz ala?”. Gazteak gaztelaniaz ari ziren beraien artean. Entzule horren ustez, “egin ezazue euskaraz” leloa ari da zabaltzen. Jauregik honela erantzun zion: haurra engaina dezakezu, baina gaztea ez. Kontraesan guztiak ateratzen dizkigute. Igoal arazoa ez dira beraiek, gu baizik. ■

Babeslea: UPV/EHU

UPV/EHU

30 urte irakasten eta ikertzen,
milioi laurden profesional
euskal gizartearen zerbitzura.

artearen historialariak • interpreteak • zuzendariak • gizarte langileak • epaileak • kriminologoak • gizarte hezitzaileak • biokimikariak • zaharberritzaileak • geologoak • teknologoak • politologoak • itsasariak • grabatzaileak • medikuak • arkitektoak • ingeniariak • kazetariak • erizainak • psikologoak • diseinatzaileak • ingeniari teknikoak • kimikariak • biologoak • fiskariak • historialariak • filologoak • itzultzaileak • irakasleak • matematikariak • artistak • odontologoak • pediatriak • ekonomialariak • enpresariak • abokatuak • fiskalak • ikerlariak • pedagogok • logopedak • eskultoreak • farmazialariak • margolariak • soziologoak • geografoak • topografoak • aparejadoreak • hizkuntzalariak • zirujauek • kardiologoak • filosofoak • antropologoak • forentseak • idazleak • publizistak...



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

www.ehu.es

Ordiziar eta zarauztar gazteak sarean

INKESTA egin dute Imanol Epeldek eta Maite Goñik irakasle diren eskolatan. Lehenak Zarauzko Antoniano Ikastetxeko 12 eta 16 urte arteko gazteak galdekatu ditu eta bigarrenak Ordiziako Jakintza Ikastolako 16 eta 18 urte artekoak. Segidakoak dira ondorioetako batzuk:

- Egunero Interneten eta telebistan 3,5 ordu egiten dituzte.
- Euskarazko webguneetara 4tik 1 sartzen da eta ez dibertsio bila, eskolako lanetarako gauzak bilatzera baizik.
- %90a sare sozialetan dabil.
- Sare sozialak euskaraz konfiguratuta %35ak ditu. Hori ez egiteko arrazoiak: ez dakite konfiguratzen,

gaztelaniaz hobeto moldatzen dira, ohitura...

– Kaleko hizkuntza bera egiten da sarean.

– Euskarazko webguneak ez dituzte ia batere ezagutzen.

Ahozko aldaerak mapetan

Euskaltzaindiak argitaratu berri du *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Atlasaren helburua da euskararen herriz herriko aldaerak mapetan jasotzea, eta horretarako, 145 herri-tako bizilagunei 2.857 galdera egin dizkiete lexikoaz, morfologiak, sintaxiaz eta fonetika sintaktikoaz. 4.000 ordutik gorako grabazioak ditu Euskaltzaindiak. Materiala paperean, DVDan eta sarean dago.

Bermeoko Udala UEMATik atera da

EAJk gehiengo osoz erabaki du Bermeoko Udala Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik ateratzea. EAJren hitzetan, ez dute UEMA-ren beharrik, udaleko lau teknika-riek egiten duten lanarekin nahikoa delako.

‘Nabarra’ Bilbotik

Iruñean egoitza zuen *Nabarra* hila-betekaria Bilboko NBR elkarteak argitaratuko du ekainetik aurrera. Irati Jimenez izango da zuzendari berria. Jon Orzaiz zuzendari ohiak azaldu duenez, diru sarreraren %90 galdu dute, batik bat 2009an Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak errotik moztu zituelako.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Bihotzekoak eta langileen suizidioak

Joan den pirilaren 28an, Lanean Osasuna edukitzearen aldeko nazioarteko eguna egin zen Europan. Euskal Herrian, munduko beste lekuetan bezala, sindikatuak bultzatutako ekitaldi, manifestazio eta mobilizazioak egin ziren. Nahiz eta fisikoki bananduta egon, aldarrikapen bakarra egin zen: laneko ezbehar-tasa salatu eta lanean osasuna hobetzeko eskatu. Finantza eta ekonomia krisiak langileen osasuna larriagotzea ekarri du azken bi urteetan: estres gehiago dago, eta lanpostua galdu eta langabeziaren zerrendetara erortzeko aukeraren aurrean, depresioa eta larritasuna sortu da. Larritasuna eta depresioaren arazoei aurre egiteko psikofarmakoen preskripzioak %12 egin du gora. Laneko heriotzen %31 bihotzekoak jota izaten da.

Zerbait larria ari da gertatzen, gure lantokietan eta gure jendartearen, egoera hori ahalbidetzen duena. Langileek eta beren familiek, lan etorkizun ilun eta zalantza-azkoaren aurrean, estresa eta larritasuna jasateaz gain, prekarizitatea, malgutasuna, azpi kontratazioa eta behin behinekotasuna jasaten dute. Horrek guztiak lan ezbehar-tasa handiagoa eragiten du, eta ondorioz, bihotzekoak, hildakoak eta suizidioak. Beraz, bestelako lan eta gizarte eredu behar da, langilea makina beharrean, pertsona izango dena. Horretarako eredu sozioekonomiko berriaren alde egin behar da, enpresen etekin handienak langileek lantokian osasuna edukitzera bideratzeko. Amianto kantzerigenoak bezalaxe, eredu kapitalistak hil egiten du!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Unai Larreategi eta Igone Lamarain EHEko kideek *Berrian* esanak: “Tkerketa soziologikoez diote Euskal Herrian %30 inguru independentistak garela. Baina zer erantzungo genuke ondoko galderak egingo baligute? ‘Eta zertarako nahi duzu independentzia?’ (...) Zenbatek erantzungo lukete ‘herri nortasuna mantendu eta garatzeko, berreuskalduntze prozesua azkartzeko behar dugu euskal estatua’ bezalako esaldiren batekin? Egin proba zuen inguruan, eta egiaztatu emaitzak”.

Jaurlaritza eta jatorrizko bekatua

URTEBETE bete da PSE PPren eskutik Eusko Jaurlaritzara heldu zela eta bada zer aztertutik, baina lehenik eta behin komeni da gogoratzea nola heldu zen, zerk ahalbidetu zuen gehiengo berria. Eta hori Alderdien Legea izan zen, ezker abertzale historikoa hauteskundeetatik kanpo uzteak ekarri zuen PSEk PPK eta UPyD-k Eusko Legebiltzarrean gehiengoa eratzea eta, beraz, Gobernu berria osatzea.

Lopez lehendakariak tinko azpimarratu du Jaurlaritzak elkar bizitza areagotu duela, etengabeko liskar irudia baztertu duela, normalitaterantz urrats handia eman duela. Baina ez da horrela. EAEko azken hauteskunde autonomikoek ez dute lurralde horretako gizartea ordezkatzeko eta Gobernu honek badu legitimitate arazo latza.

Estrasburgoko Auzitegiak, Alderdien Legeari legezketasuna emanez, legitimazio arazo horiek lausotu egin zituen, baina ez estali. Auzitegi horrek eta Espainiako gehiengoak esanak esan, euskal gizartearen gehiengoak Alderdien Legea arbuiatzen du. Eta, horrez gain, ez du gustuko Eusko Jaurlaritza bera ere, Euskobarometroko inkestek adierazten duten moduan –2009ko azarokoa adibidez–.

PSE-PPren ikuspegitik garrantzitsuena Jaurlaritzara iristea zen. Normala da hori eta erabateko gardentasunez egin izan balitz, agian onuragarria zatekeen. Hiru hamarkadatan jeltzaleak Jaurlaritzan nagusi izan ondoren, alternantzia ona litzatekeela edonork uler zezakeen. Baina ez horrela.

Lopez lehendakariaren Gobernuak hasieratik erakutsi nahi izan zuen gatazkari dagozkion gaietan



ARGAZKI PRESS / R.B.

muturreko aldaketa egingo zuela. ETaren atentatu batzuk eman zioten hori irudikatzeko aukera, horietako lehena Eduardo Puelles inspektorearen hilketak izan zen iazko ekainean eta bertan indarrez taularatu zen aldaketa, bereziki EITBn. Gaur egun ere, oso esanguratsua da ezker abertzale historikoko politikariei hedabide publikoetan egiten zaien zentsura.

2008an eztanda egin zuen ekonomia krisia da Gobernu honi zuzenean kudeatzea egokitu zaion arazorik larriena eta, seguenik, bere jardura ez da asko bereizten inguruko gobernu sozialdemokrata liberelekin egindako politiketatik. Euskal ekonomiaren ehun industrialak eta ekonomi sare sendagoak krisiari Espainian baino askoz hobeto eustea ahalbideratu dute, baina ez sufritu barik.

Liskar eza, hori da Lopezek azpimarratzen duena, baina aski da zenbait eremutara hurbiltzea hala ez dela ohartzeko. Gatazkaren biktimen eremuan bistan da ETaren biktimak ordezkatzeko dituzten elkarterik handienak pozik daudela. Bistan da gatazka eta biktimei buruz abiarazitako politikak arazo ugari ekarri dutela. Euskal preso politikoen eremuan ekindako guru-

tzadak arazo frango sortu zuten zenbait herri eta festetan, presoekiko edozelako elkartasun keinu kriminalizatu eta ETarekiko apologia bihurtuz.

Hezkuntzan ere bi gaik zalaparta handia ekarri dute. Eskoletara eramateko moduak, Jaurlaritzak gai honetan duen aldebakarreko ikuspegia nabarmen islatzen du gaiak. PPren bultzada ere bereziki ikusten da gai haue-
tan. Jaurlaritzaren proiektua

eskoletara bai ala bai helduko dela segurtatu berri du Antonio Basagoiti EAEko PPko buruzagiak. Alor honetan PSE malguago ari da, batez ere EAJrekin funtsezkoa zaion akordioa lortzeko. Ez ordea biktima ikuspegiaren moldean, non funtsean ETak eragindako sufri-mendua ikusarazi eta gizarteratu gura den eta ETaren aurkako borrokan sortutakoa estali: errepresioaren ondorioz hildakoak, torturatuak, presoak, atxilotuak...

Euskara, gaztelera eta ingelestarren parekatzeaz ere kezka handiak dira hezkuntza eta euskalgintzaren eremuetan. Berdin Jaurlaritzaren administrazioan lanpostuen hizkuntz eskakizunetan ematen ari diren aldaketekin. Azkenean jardura horien oinarrian bada euskara eta euskaldunontzat erabat arriskutsua den honako pentsamoldea: euskara koofiziala da hemen, onartuak ditu bere eskubideak eta euskal hiztuna libre da berau erabiltzeko. Kitto, ez eskatu gehiago. Brotxa sendoarekin egindako analisisa da eta ez du esan gura Jaurlaritzak egindako guztia akuilu horrekin bultzatzen duenik, baina PSEko sektore nagusienek eta PPK horretara bultzatzen dute Jaurlaritza honen jardura.

PELLO ZUBIRIA

Kubako iraultza Habanako ortuetan aurkitzen da

Petroliorik gabe, traktorarik gabe, ongari kimikorik gabe, botikarik gabe, kasik ezer gabe... elikatu ote litezke herritarrak? Baietz erakusten diete Kubako baratze “organoponico” deituek, energi krisiaren baitan nola biziraun daitekeen ikasi nahi dutenei.

ORGANOPONICO VIVERO ALAMAR Habanako ekialdean dago, 11 hektareako baratzea bost eta sei solairuko etheen artean, 300.000 biztanle biltzen dituen Alamar auzoan, hiriburuko alde zaharretik hogeibat kilometrotara. 150 langile kooperatibistak eskuz jorratzen dituzte lur guztiak, ekoiztutakoa atarian daukaten denda txikian herritarrei zuzenean saltzeko, nahiz eta gero eta gehiago jatetxe eta hotelak ere barazki eske datozkien. Gainera, ekoturismotik ere ateratzen dituzte sosak, mundu osotik nekazaritza organikoa –ekologikoa, biologikoa...– hiri erdian nola egitera ikusi eta ikastera datozenei bisita gidatuak eskainiz.

Lau bazkidek ekin zioten 1997an orduan doi-doi hektarea zuen eremua lantzeari. Gero azalera zabalduz joan ziren, bazkideak ugarituz, noizbait kiroldegi izateko izendatua zegoen lursail zabortege bihurtua berreskuratuz. Gaur Alamarreko ortuaren informazioak ugariak dira Interneten. *Monthly Review* aldizkarian Sinan Koont-ek erreportaje zabala eskaini dio *The Urban Agriculture of Havana* tituluarekin. Alamarreko organoponikoaren aita-pontekoa eta liderra den Miguel Salcines *Cuba Informacionek* ipinitako hiru zatitako elkarrizketan ikus daiteke bideoz. Eta gehiago badira.

Europako nekazari aurrerazaleen eta ekologisten artean famatuak diren organoponikoak Habanako edozein tokitan aurki daitezke, berdin autopista bazterretan edo Miramar auzo pribilegiatuan enbaxaden artean kokatuta. Hiriburuko lurzorua %8 dago baratzez osatuta.

Sobiet Batasuna lehertu zen garaietan sortutako fenomeno da organoponikoena. Kubako nekazaritza aspalditik zegoen industrializatuta, baina 1959ko iraultzaren ondoren herrialde komunistekiko harremanean azukre ekoizpenean zentratu zen. Merkatu librekoa baino prezio hobean erosten zion azukrea Kubari Sobiet Batasunak, trukean makineriak, petrolio eta janariak salduz.

Comecon izeneko merkatu komunista 1991an desegin zenean, Kuba heriotzara kondenatuta aurkitu zen: azukrea saldu ezinik eta petroliorik eskuratu ezinik. 1991tik 1995erako “Periodo Especial” deitua bake garaiko gerra egoera bihurtu zen. Kanpo merkataritza %80an urrituta, petrolio %90 murriztuta...

Habanako agintariek, irtenbide bila, alde batetik ordura arte sakrilegiotzat jotako hautua egin zuten: turismoa bultzatu eta dolarra onar-

Photoshelter zerbitzuan Felix izeneko batek lagatako irudian Miguel Salcines ageri da Organopónico Vivero Alamar kooperatibako baratzean. Salcines Nekazaritza Ministerioko goi karguduna zen 1997an beste hiru bazkiderekin ortugintzan hasi zen arte. Nabarmen ikusten denez, Alamarreko etxebizitzan tartean dago organoponikoa, Habanako eta Kubako gehienak bezala. Ortua askatan dago antolatuta, bazterrolen lana teilatuen batetik berreskuratutako fibrozementuzko –uralitazko– puskek egiten dutela. Erdiko askan ikus daiteke ura tantaz tanta banatzen duen hoditxo. Salcines makurturik dago bazterreko loreen aurrean, loreok xomorroak eta izurriak kontrolatzeko ipinita daudelarik. Bixitez gain ikastaroak ere eskaintzen dituzte Alamarren.

tu ekonomiaren barruan. Bestetik, nekazaritza osoa berrantolatu behar izan zuten. “Periodo Especial” hartan herritarrek gosea pasatu zuten, argaldu egin ziren. Azukre ekoizpenari lotutako egitura gehienak desegin ziren, lur asko abandonatu zen, traktoreak desagertu ziren, lurra goldatzeko idietara itzuli ziren –gaur hala segitzen dute– eta aldi berean elikaduren produkzioa hiri barrura hurbiltzea erabaki zuten.

Gizon beroegiak, emakume hotzak

Baratze organoponikoen sorrera batzuek Nestor Lopez Cuba jeneralarai aitortzen diote, bera zegoen kasernetan soldaduen laguntzarekin betidanik nekazaritza oso intentsiboa lantzen zuelako eta esperientzia Raul Castorri kontatu omen ziolako. Beste iturriek garrantzia handiagoa ematen diote urte latz haietan Australiatik permakulturan aditutako militanteak laguntzera azaldu izanari. Edonola izanik ere, urte gutxitan arras aldatu da Kubako elikaduren ekoizpena organoponikoekin.

Lanerako eskuak eta buruaz gain beste ezer ez dagoen eremuan elikagaiak sortzeko sistema da organoponiko bat, energia urritasun erabatekoan bizirauteko modua... eta ahal bada enpresa egitura eraginkorra mantentzekoa. Baratzeotan ez



da traktorarik, eta dagoenean abandonaturik geratu da konpontzeko piezarik topatu ezin delako. Ez da petroliorik. Ia motorrik ez da. Ez da ongarri kimikorik, merkatuan aurkitu ezin delako, eta gauza bera gertatzen da xomorrontzako botikekin. Zer geratzen da? Natura bera, gehienetan oso hondatua, eta gizakien besoak eta adimena.

Organoponikoetako baratzeak kaxa edo aska erraldoiez osatuta daude. Horietan, edozein zoruren gainean, tantaz tantako ureztatzeko ximplea ezartzen da eta landareak azkar hazteko prestatutako lurra. Landareak bertako mintegietan sortzen dira, bertako haziak, ia ezer ezin da erosi kanpoan.

Lurra ere organoponikoan bertan sortzea beste biderik ez dago.

Alamarreko baratzea bisitatzen dutenek konposta, zizare bidezko humusa eta lur berria nola sortzen diren ikasten dute hitzaldi laburrean. Simaurra eskuratzea bera buruhautea zaio inguruko ukiulu handiren batetik kamioiz ekarri behar duenari... matxuratutako kamioia konpontzeko modurik ez baldin badauka. Horregatik ahal dela simaurra ere bertan sortu behar da, horretarako abelburu batzuk edukita... pentsurik gabe bazkatuak, prefosta.

Bitartekoak eta tresneria izan litekeen xumeenak baldin badira, aldiz, ortuetako zati eta aska bakoitza antolatuta dago milimetrorainoko prezisioz. Landare bakoitzak lur mutur juxtua eduki behar du, ez soberan lurra ez alferrik galtzeko,

ez faltak aski indartzeko. Aska bakoitzean, gainera, klase ezberdinetako landareak konbinatzen dira, elkarri laguntzeko bai elikaduran eta bai xomorro eta izurrien kontrako lehian.

Hemen ez da botikarik, bioaniztasunarekin jokatzeko da xomorroi gaina hartzeko. Organoponikoetan deigarri egiten dira barazkiekin nahastutako loreen koloreak. Xomorroekiko borrokan kolore aniztasuna garrantzitsua omen da, xomorro ezberdinek maite dituzten landareen banaketa txukuna bezala. Horregatik ikusten dira asken muturretan kalendula eta tagete laranja kolorekoak, edo barazki eremuen bazterretan arto ilarak, zorriak berenganatzen omen dituztenak.


Izurria urrunago iritsi baldin bada, orduan sendabelarretara jo beste biderik ez da. Organoponikoetan beti dago sendabelarren atala. Herritarrek ere horiek eskatzen baitituzte, patente amerikarreko botikarik sartzen ez den Kuban dena aprobetxatzen denez gero, antigoaleko belarren jakinduria bezala erleek ekoiztutako propolia.

Kuba osoan baina batez ere Habanan nabarmena da trantsizio neketsu batean sartuta daudela. Venezuelan Hugo Chavezek agintzeak arnasaldia eman die, hori bai, agintariei. Trantsizio garaietan agertzen dira nabarmenen herrialde baten aurpegi ezberdinak. Karibeko errepublika sozialistan turismoaren bueltan indartu den ekonomia berria da bat. Baina Habanako ortu organoponiko kooperatibo bat ikusi ez duenak beste erdia faltako du. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Josemari Velez de Mendizabal

Bozkarioan

S

egurantza Sozialari hogeita hemeretzi urte luzeko kotizazioa egin ondoren, aurre jubilaziora igarotzea erabaki dut. Hamalau mila eta laurehun egunetako kuota ordaindu ondoren, osoko jubilazioaren artean nago aurtengo apirilaren 6tik. Eta data horretatik iraultza txiki bat bizitzen ari da nire izpiritua, egoera berrira egokitzea nekeza gertatuko balitzaio bezala.

Moisesen legearen arabera, berrogeita bederatzi lan urteren ondoren nork esku-bide sakratuari hel ziezaiokeen, hots, graziazko berrogeita hamargarren urtea kolperik eman gabe bizi ahal izatekoa. Horri jubileuko urtea esaten bide zitzaion, eta esplotatzaile eta satrapei betiko bizkarra emanda, saridunak eskubidea zuen, aurreko garaietan bere burua eta sendiarena aurrera ateratzeko saldu behar izan zituen lurak berreskuratzeko. Modu horretan, zorioneko hiritarrari bermatzen zitzaion bere askatasuna eta aurrerantzean biziko zituen urteak, bederen, zeharoko pobrezian ez ematea.

Moisesi jaramonik egin gabe, lurtarragoa den Segurantzari Sozialari nire eskubidea aldarrikatu nion, eta jubileuko urtera ez baina jubilara –bozkarioa– eman dut jauzia, jarraitasunik gabeko ariketan. Eta hementxe naukatzue, bizimodu berrian bete-betean, nahiz eta –diodan bezala– gogoia eta gorputza oraindik erdi galduta dabilzkidan. Ohituko al dira? Horren esperoan nago.

Oraindik atzo izan balitz bezala gogoratzen dut nire lehen lan eguna. Arrasateko Polmetasa lantegian zen eta –ikasle denboretako 8-14 ordutegiko ihardunak gogoratuz, nonbait– bazkal ostean lanlekura itzuli nintzenean nire buruan “baina arratsalde ere bai?” galdera zen nagusi, hura gehiegi zuela pentsatu izan bailuen. Bai, urtarril 13 urrun hartatik goiz, arratsalde... eta gau askotako nekeak pilatu ditut, judutar zibilizazioan bibliar zigor



DANI BLANCO

gisa saldu zitzaigun bide malkartsuan. Eta garbi utzi nahi dut, kontzientzia osoz adierazita ere, niretzat lana ez dela madarikazio bat gertatu, alderantziz baizik. Argi daukat hori, ez bainintzen, adibidez, osterantzean izkiriartzen ari naizen lerro hauek betetzen egongo.

Baina badakit nirekin bat etorriko ez diren pertsona asko eta asko aurkituko ditugula hor eta hemen, lanaren etekin kolektiboaz konbentzitzeko erabil neza-keen nire balizko diskurtso morala errefusatuko dutenak, lanaren beraren baldintza errealek –hein handi batean– pertsona merkantzia hutsa bilakatu baitute. *Homo faber* deritzanari ahaztu egiten zaio maiz, gainerako nolakotasun guztien gainetik, gizakiak gizateriaren duintasunaren aldeko apustu jarraikian duela erronka nagusia, baita lanean ere. Eta horren ezean, esplotazioa, injustizia,

gizakien arteko desberdintasunak... horiek bai izango dira madarikazio itzela, baina ez Bibliakoa soilik baizik eta –barkaezinena– eguneroko bere ibilbidean gu *Homo sapiens* deitutakook idazten ari garen liburu mardul bezain inkongruentekoa.

Asmoa daukat lanaren ibilbidetik segitzeko, oraingo aldian Segurantzari Sozialaren laguntza pittin batekin. Irakurgai sakratuak baztertu gabe, hezur eta haragizkoei lehentasuna eskaintzen jarraituko dut, ez baita ezer sakratuagorik ongizate kon-

partiturako –bozkarioa– gizakiaren eskubidea baino. Gure bitartekoei erai-ki dugun gizarte ez orekatu honetan hamaika injustizia antzeman daitezke maila guztietan, eta –moralki bederen– horien konponbidean iharduteko konpromisoari muzin ez egitera gaude kondenatuta. Konbentzitu nago lana, berez, ez dela zigorra. Ez naiz atrebitzen gauza bera esatera, gizon-emakumeok lanaren fruituari eman ohi diogun ondorioaz. ■

Gure bitartekoei erai-ki dugun gizarte ez

orekatu honetan hamaika injustizia

antzeman daitezke maila guztietan, eta

–moralki bederen– horien konponbidean


iharduteko konpromisoari muzin ez egitera

gaude kondenatuta. Konbentzitu nago

lana, berez, ez dela zigorra

ASTE HONETAKO

zozketa



Amagoia í Etxekar

AiE diseinuzko soinekoa

La Bretxa Merkatal Gunea
goi solairua
Donostia GIPUZKOA

www.amagoiaietxekar.com

1



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

2



Chillida-Leku Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Jauregi auzoa, 66
Hernani GIPUZKOA

www.museochillidaleku.com

3



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

4



Esne zopak Esne saltzailearena

5 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2227. Argia)

LAIA ERRETEGIA

- Itziar Aurrenetxe Uriarte (Deustu)

TXOMIN ETXANIZ TXAKOLINA

- Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain)

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

- Josebe Sagarzazu Ancisar (Hondarribia)
- Jose Mari Goiburua (Donostia)
- Ramon Iriondo Bergara (Hernani)
- Karmen Alvarez Yagüe (Donostia)

MISERIKORDIA ETXEA

- Jose Mari Segurola Amutxastegi (Gasteiz)
- Txomin Etxebarria Bereziartua (Bilbo)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)
- Maria Jesus Cereceda Garaio (Bermeo)

POETIC BABIES... Cda

- Jokin Ginea Kortajarena (Galdakao)
- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)
- Auro Anzorregi Altzibar (Mutriku)
- Xabier Campos Hernandez (Iruñea)


PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Iparrak galduta ez zaitez ibili

Iparrak Euskal Herria ezagutarazteko Mugalariren gida berria



- Gure herriaren iparraldean zehar ibiltzeko gida eguneratua.
- Hamasei errepide-ibilbide, Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean dauden toki xarmangarriez gozatzeko.
- Ahaztezinak egingo zaizkizun txangoak prestatzeko behar duzun informazio praktikoa osoa.
 - Argazki eta mapaz hornitutako 248 orrialde.
 - Formatu erabilgarri eta erosoa.

Maiatzaren 7tik aurrera zure kioskoan

GARA +11,95 €

